


Euskaltzaindiaren
Oroit-Idazkia
1993



Memoria
1993
Real Academia de la Lengua Vasca
Euskaltzaindia









EUSKALZAINDIA
LIBURU BILBUENAKA



Euskaltzaindiaren
Oroit-Idazkia
1993

Testu-idazketa: J. L. Lizundia, P. Telleria, I. Rekalde
Testu gainbegiratzea: Endrike Knörr

© Euskaltzaindia
Plaza Barria, 15. 48005 Bilbo

Fotokonposaketa: Ikur, S.A.
Cuevas de Ekain, 3, 1.º. 48005 Bilbo

Inprimategia: A. G. Rontegui, S.A.L.
Avda. Ribera de Erandio, 4. 48950 Erandio (Bizkaia)

Legezko Gordailua: BI-1944-1994

AURKIBIDEA

Aurkezpena	7
I. Ekintza orokorrak	9
Akademi bilkurak eta erabaki behinenak	11
Gertakari akademikoak	17
II. Batzordeen organigrama	27
Euskaltzaindiko batzordeen organigrama	29
III. Iker Saila	33
I. Batzordea: Hiztegi-gintza	35
<i>Orotariko Euskal Hiztegia</i>	37
Lexiko Erizpideen Finkapena	43
Hiztegi Batukoa	49
II. Batzordea: Gramatika	55
III. Batzordea: Dialektologia	59
IV. Batzordea: Onomastika	71
V. Batzordea: Literatura	77
Herri-Literatura	79
Literatura-Ikerketa	83
VI. Batzorde suntsikorrak	87
Euskara Batuko batzordea	89
Ahoskera batzordea	93
VII. Jagon Saila	97

VIII. Akademi-zerbitzuak	103
Egoitza eta ordezkariak	105
Azkue Biblioteka	117
Argitalpenak	123
Argitalpen batzordea	125
Argitalpen Banaketaren Zerbitzua	127
Bestelako zerbitzuak	131
Diruzaintza	135
Aurkitegia	139

Aurkezpena

Euskaltzaindiaren 1993ko lanaren berri ematen da labur orrialde hauetan.

Ezer nabarmendu beharko bagenu, agian Oñati-Arantzazuko batzarreak aipatuko genituzke, irailaren 30ekoa eta urriaren 1ekoa, Arantzazuko 1968ko batzarrea, euskara batzeko erabakiorra, egin zen tokian, eta urriaren 1eko oroigarritzko batzarrea, apala, gure erakundearentzat hainbeste gogapen dakartzan unibertsitate zaharrean. Batzarre honetan Euskaltzaindia sortu zuten lau Diputazioen ordezkariak izan ziren, 1979ko Autonomi Estatututik ateratako Jaurlaritzaren ordezkariaz landa. Gainera, ospakizunera beste erakunde batzuen ordezkariak bertaratu ziren; haien artean toki berezia merezi du, jakina, Eusko Ikaskuntzaren buruak. Euskaltzaindia bezala, Eusko Ikaskuntza bertan sortu baitzen.

Euskaltzaindiaren batzarre hura lan egutegi trinkoaren hasiera izan zen. Gaikako Jardunaldi batzuk egingo dira, izan ere, 1994ko urtean zehar, eta erpina Euskal Herriko Unibertsitatearen Leioako campusean egingo den biltzarra izango da, urriaren 3tik 7ra. Ez dabil Euskaltzaindia bere buruarekiko atseginaren bila. Lana egin nahi du, hizkuntzaren eremu desberdinetan, bere 75. urteurrenean ikerle eta ikasle guztiei, eta Euskal Herri guztiari, ekarpen duina eskaintzeko hizkuntzaren aitzinamenduari dagokiola, arautzea osatzeko, egungo premietara egokitzeko eta gizartean zor zaiona hartzeko.

Beste gertakari handi bat izan da 1993an, Pabeko Nafarroako Parlamentua deritzan etxe ederrean. Uztailaren 30ean egin zen batzarre jendetsuaz ari gara. Zazpi probintzietako ordezkari politikoak joan ziren. François Bayrouk, Frantziako Hezkuntza ministroak eta Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorreko buruak Euskaltzaindia erre-

zibitu zuen ofizialki, era honetara. Harrera distiratsu horren ondoren Euskaltzaindiaren Frantziako ezagutza ofiziala laster etorriko ahal da.

Batzordeen berriztatzearen urtea izan zen orobat 1993. Iruñean gertatu zen hori, martxoko batzarrean. Handik hilabetera, Zornotzan, Euskaltzaindiaren VIII. Barne Jardunaldietan, Barne Erregelak erroik aldatzeari ekin zion Akademiak, eta ondorioz Arautegiaren egokitzeari. Esan dezagun, halaber, apirileko batzarre horretan adierazpen garrantzitsua jakinarazi zuela Euskaltzaindiak, euskara batuaren inguruan dabilzan sasiusteak uxatzeko asmoz. Beste adierazpen bat plazaratu du, gainera, Euskaltzaindiak 1993an: erdaratiko deituraren grafiari buruzkoa.

Endrike Knörr,
idazkaria

I. Ekintza orokorrak

Akademi bilkurak eta erabaki behinenak

AKADEMI BILKURAK ETA ERABAKI BEHINENAK

Urtarrila

— Bilboko egoitzan, 75. urteurrenaren ospakizunei hasiera emateko Euskaltzaindiaren sorreraren bultzatzaile izan ziren Kosme Elgezabal eta Felix Landaburu diputatuen oroimenean ekitaldi ireki bat ospatu da.

— Hileroko bilkuran, Euskara Batuko batzordearen erabaki-proposamena: *Nornahi*; *Nor/nortzuk* eztabaidatu da.

Otsaila

Hileroko bilkuran, Euskara Batuko batzordearen erabaki-proposamena: *Nornahi* eta sail berekoak; *Nor/nortzuk*; *Zerbaitzuk* eta sail berekoak aztertu dira eta Onomastika batzordeak egindako «Erderatiko deituren grafiei buruzko adierazpena» deritzon idazkia onartu da.

Martxoa

— Iruñean, batzordeen berriztapena onartu da. Batzordeon organigrama dagokion atalean agertuko da.

— Hiztegi Batukoaren lehen hitz-zerrendaren aurkezpena egin da eta, ondoren, aurkezpen honi egindako oharren eztabaida izan da.

Apirila

— «Cámara de Comptos» izenari buruzko diktamena onartu da eta, era berean, Euskara Batuko batzordearen erabakiaren finkapena: *Nornahi*; *Nor/nortzuk*.

Maiatza


— Antonio Tovar akademikoaren liburutegiaren katalogoa aurkeztu da.

— Zornotzan, VIII. Barne Jardunaldiak burutu dira, gai nagusiak Arautegiaren aldaketak eta Barne erregelen berriztatzea izan direlarik.

— Bestalde, «Alcalde-jurado» hitzaren euskal ordainaren diktamena ere egin da.

Ekaina

— Jarraian aipatuko diren ohorezko euskaltzainen izendapena egin da: Bernardo Estornes, Jean-Baptiste Etcheberry, Karlos Santamaria, Martin Ugalde eta Agustin Zubikarai.



Ezkerretik eskuinera: Agustin Zubikarai, Bernardo Estornés Lasa, Martin Ugalde.

— Erregelen berriztapenarekin jarraituz, hil honetan, «Sail eta batzordeak» deritzon atala aztertu da.

Uztaila

— Hil honetako bilkuran, besteak beste, gai hauek tratatu dira: Erregeletako «Sail eta batzordeetako» atalari dagokion azterketari amaiera eman zaio.

— Pello Telleria, eragile teknikari izendatu da. 1994.eko aurrekontuak onartu dira, eta, *argitalpen* hitza hobetsi da.

Iraila

— Erregelen «Euskaltzainen aulkiez» atala onartu da; Erregelen «Argitalpenak» atalaren eztabaidaren hasiera eta,

— Gobernu Zentralaren Ordezkaritzatik eskatuta, *Euskal Herria* eta *Euskadi* hitzen erabileraren azterketa egin da.

Urria

— Urriaren lein, 75. urteurreneko egitaraua onartu da.

— Erregelen atal berriaren azterketari hasiera eman zaio: «hutsarteak, hautagaiez eta izendapenez» eta Argitalpenari buruzko atala onartu da.

— Ahoskera batzordearen osaera onartu da.

— Nekazaritza hiztegiko zalantzak argitu dira.

Azaroa

— Erregelen azterketaren jarraipena: «euskaltzainen kopurua euskalkien eta lurraldearen arabera».

— Euskara Batuko batzordearen proposamena: *zio/zione; bostgarren/bostgarren/bostna* eta antzeko formak aztertu dira.

— Nekazaritza hiztegiaren zalantzazko hitzen azterketa ere egin da.

Abendua

— Erregelen azterketa: «euskaltzaintasuna» izan da eztabaidagai.

1994.eraiko batzar egutegia onartu da.

— Hitanoari buruzko erabaki proposamenak aurkeztu eta eztabaida irekia egin da.

Gertakari akademikoak

GERTAKARI AKADEMIKOAK

Sail honetan, urtean zehar jasotako gertakari akademikoak azaltzen dira. Lehendabizi, nagusienak aipatuz eta azkenik, laburki hilez-hil izan direnak.

VIII. BARNE JARDUNALDIAK

Zornotzan, bertako barnetegian, maiatzaren 27 eta 28an egin ditu Euskaltzaindiak bere VIII. Barne Jardunaldiak. Bilkura mota hauek bi urtean behin egin ohi ditu herrialdez herrialde Erakundearen barne antolakizun egitura eta abar aztertzeko, hain zuzen ere bi aldiz honetarako bildu baita Bizkaian, Gipuzkoan eta Iparraldean, bana Araban eta Nafarroan.



Zornotzako barnetegia.

Zortzigarrenon xede nagusia Arautegia eta Barne-Erregelak eraberritzea izan da, zeren eta 1972 eta 1974 geroztik indarrean dauden arauok eguneratze bat eskatzen baitzuten Euskaltzaindiaren gaurko eginkizunei erosoki aurre egiteko. Geroztik, hilean-hilean eta kapituluz-kapitulu jarraitu da eraberritze honetan.

Horrez gain, euskara batuari buruzko adierazpen hau ere gauzatu da Zornotzan:

«Euskara batua dela eta gizartean dabilzan uste okerrak eta egiten diren gehiegikeriak ikusirik, hau adierazten du Euskaltzaindiak:

1. «Euskara batua», Euskaltzaindiak 1968.etik aurrera batasunerako eman dituen arauak bakarrik osatzen dute. Hau dela eta Euskaltzaindiak esan behar du badirela han eta hemen arau batzuk euskara batukotzat jotzen direnak eta Euskaltzaindiak inoiz ere eman ez dituenak. Hortaz, oraingoz *emaile*, *emale* bezain zilegi da euskara batuan; era berean, *barik*, *nahiz gabe*, *hetsi zein itxi*, *lagundu dut* edo *lagundu diot*, etab.
2. Arautzeke zeuden puntuei begira (zenbakien idazkera, *bat*, *batzuk*-en deklinabidea, etab.), batasunerako gomendioak ematean, azken urteetako erabilera ahantzi gabe, literatura tradizioa du Euskaltzaindiak oinarrizko irizpide eta han zabalduena eta erabiliena den forma hobesten du. Horregatik gomendatu da *arabera* eta *ez arauera*.
3. Euskaltzaindiak ezagutzen ditu azken urteetako bateko eta besteko erabilerak. Hala ere, Arantzazun batasunerako ireki zuen ildoari jarraitu behar dio. Adibidez, Euskaltzaindiak *hogeita hamar* idaztea gomendatzen badu eta ez *hogeitamar*, bere garaian *zahar* eta ez *zar*, *ahalegin* eta ez *alegin* onartu zituen arrazoi beragatik gomendatzen du.
4. Literatur ondarea bere osoan hartzen du kontuan Euskaltzaindiak batasunerako inongo euskalkirik baztertu gabe.

Zornotzan, 1993.eko maiatzaren 28an»

Azkenik esan behar da, maiatzari dagokion hileroko bilkura ere bertan egin dela, ohizko gaiak tratatuz.

EUSKALTZAINDIA ETA EUSKAL AGINTARIAK PABEN

Euskaltzaindia, bigarrenaz atera da Euskal Herri historikotik. Lehen aldiz Donemiliaga Kukulara joan baitzen 1974ko ekainaren 15ean, Errioxako Diputazioaren «Instituto de Estudios Riojanos» erakundeak gonbidaturik. Oraingoan, joan den uztailaren 30ean Pabeko Nafarroako Parlamentuan izan da Euskaltzaindia, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorra deituta.

Uztailari zegokion hileroko bilkuraz gain biltzar ireki bat egin da. Mahai-buruan, jaun hauek egon dira: François Bayrou, Kontseilu Orokorreko burua; Jose Antonio Ardanza, Euskal Herriko Autonomi Elkartearen lehendakaria; Javier Marcotegui, Kultura eta Hezkuntza kontseilaria, Juan Cruz Alli Nafarroako Gobernu buruaren izenean eta Jean Haristchelhar, euskaltzainburua. Pirinio Atlantikoetako diputatu, senatore eta kontseilari anitzez gain, Lapurdi, Nafarroa Behereko eta Zuberoako alkate zenbait ere Kontseilu Orokorreko aretoan izan dira. Baita ere Jose Alberto Pradera, Bizkaiko diputatu nagusia; Eli Galdos, Gipuzkoako diputatu nagusia eta Pedro Ramos, Arabako Kultura saileko diputatua, herrialdeko diputatu nagusiaren izenean. Orobat, Gasteiz eta Iruñeko gobernuetan Hizkuntz Politikarako arduradun nagusi diren M. Karmen Garmendia eta Jose M. Rodriguez Ochoa.

Hitzaldietatik aipamen garrantzitsuenak hauek izan daitezke: François Bayruk: Euskararentzat lehen laguntza ofiziala Joana Albret erreginagandik etorri zela, jakobinismoa gaitsetsi du eta Frantziak euskara behar duela, Europak kultur aniztasuna behar duen bezala. Jose Antonio Ardanazak: Egun, zazpi probintziatako hautetsiak biltzen zirela, elkarlanerako deia eginaz, ideologia guztien gainetik. Javier Marcoteguiak: Euskerarendako muga eta debeku guztiak kentzeko alde agertu da. Jean Haritschelharrek: Euskarari dagokion legeria aipatu du bai eta Euskaltzaindiak bi Estatuaren gainetik sortzez duen izaera. Txomin Peillenek: Euskaraz eta gaskoineraz, bi hizkuntzen arteko harremanez.

EUSKALTZAINDIAREN 75. URTEURRENAREN OSPAKIZUNAK

Arantzazun irailaren 30ean eta urriaren 1eko goizean bildu da Euskaltzaindia 75. urteurreneko ospakizunei hasiera emateko. Horrez gain, urriaren 1ean arratsaldean Oñatiko Unibertsitatean egin da agerizko bilkura.

Irailaren 30ean, hileroko bilkura alde batetik, eta 75. urteurreneko batzorde berezia bildu dira duela 25 urte Arantzazuko Biltzar famatua egin zen gela berebanean. Biharamun goizean, han bertan, euskaltzainak, batzorde-idazkari eta eragile guztiekin 1994ko urte osoko jardunaldi guztien egitaraua finkatu du eta baita ere XIII. Biltzarrarena.

Jardunaldien egitaraua honela labur daiteke:

Urtarrilean, Donostian, Lexikologia Erizpideen Finkapenez.

Otsailean, Bilbon, Jagon Sailarenak eta Hizkuntz Akademia arteko bilkura.

Martxoan, Iruñean, Gramatikaz.

Apirilean, Gasteizen, Hiztegi Batuaz.

Maiatzean, Bilbon, Ahoskeraz.

Ekainean, Miarritzen, Exonomastikaz

Uztailean, Donostian, Literatura Hiztegiak.

Bestalde, irailaren 21ean Gipuzkoako Diputazioan, Euskaltzaindiak orain 75 urte osotu zen egun eta toki berebanean, oroimenezko bilkura berezi bat egingo du, bertara euskal komunikabideak deituaz. Hain zuzen ere, garai hartako euskal aldizkariaren ordezkariak hautatu baitzituzten Akademia osotzeko falta ziren zortzi euskaltzainak.

1994.eko urriaren 3tik 7ra, Euskal Herriko Unibertsitateko Leioako Campusan, 75. urteurreneko egitaraua burutzeko, Euskaltzaindiak bere XIII. Biltzarraren eratu du. Bertan urtean zehar jardunaldiz jardunaldi landutako gaiak eztabaidatuko dira, eta euskara batuaren garapenez beste aurrerapausu garrantzitsu bat emateko, hain zuzen ere, orain 25 urte Arantzazuko Biltzarrean euskara batua finkatzen hasitako hildo beretik.

Pasatu den urriaren 1ean, arratsaldeko 5etan, Oñatiko Unibertsitateko Max Weber aretoan, egin du Euskaltzaindiak ageriko batzarrea. Ospakizunen hasiera ofiziala emanez urteurrenaldi honi, bildu dira euskaltzainez gain, Jose Antonio Ardanza Euskal Herriko Autonomi Elkartearen lehendakaria, Juan Cruz

Alli Nafarroako Gobernuburua, Eli Galdos Gipuzkoako diputatu nagusia, Alberto Ansola Arabako diputatu nagusia, Jose Alberto Pradera Bizkaiko diputatu nagusiaren ordeiz, Tomas Uribeetxebarria Kultura foru diputatua, Joseba Arregi Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailburua, M. Karmen Garmendia Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako idazkari nagusia, Jose M. Rodriguez Ochoa Nafar Gobernuako Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusia eta Angel M. Iturbe Oñatiko alkatea. Agintariez gain, Eusko Ikaskuntza, Euskal Herriaren Adiskideen Elkarte, Unibertsitate eta beste kultur elkartetako ordezkari andana bat bertara azaldu dira.

Bilkura-hizlariak ordena honetan aritu dira: Oñatiko alkatea ongi etorria emanaz; euskaltzainburuak «Urritik urrira urrats bat gehiago» txostenean Akademiaren lanen berri emanaz, azken urteotako fruituak aipatuz, eta aginte publikoen laguntza eskertuz; Eli Galdosek hiru Foru Diputazioen izenean Euskaltzaindiari dagokion gidaritza azpimarratu du; Nafarroako Gobernuburuak Euskaltzaindiarekiko babesa aditzera eman du eta, ospakizuna burutzeko, Lehendakariak euskararen geroan Euskaltzaindiak duen toki garrantzitsua agertu du bere hitzetan.

KATALUNIA ETA GALIZIAKO BIDAIAK

Azaroaren 11n eta 12an, Endrike Knörr Euskaltzaindiko idazkaria, Jose Antonio Arana diruzaina, Jose Luis Lizundia idazkariordea eta Juan Jose Zearreta ekonomi eragilea, Bartzelonara joan dira harreman-gestiogintza bidaia bat egitera.



Ezkerretik eskuinera: Jose Luis Lizundia, Endrike Knörr, Miquel Reniú, Jose Antonio Arana Martija, Juan Jose Zearreta.

Alde batetik, Joaquim Rafel Institut d'Estudis Catalans-eko idazkari orokorrekarekin eta Mercé Boronat administrari nagusiarekin bildu dira erakunde bien arteko informazio trukaketa eta harremanak sendotzeko, katalan hizkuntzaren erakundea Jagon Jardunaldiekin batera egingo diren 75.urteurreneko ospakizunetara ofizialki gonbidatuz.

Bestetik, Miquel Reniu eta Isidor Marí Generalitateko Hizkuntz Politikarako zuzendari orokorra eta ordearekin egon dira, hizkuntza bien arazoez arituz gainera, otsaileko jardunaldietara katalana, galegoa eta euskara mintzatzen diren sei Administrazio Autonomikoetako arduradun nagusiak deituko direla adieraziz. Euskaltzaindiak bere urteurrenarekin baliatu nahi baitu Estatuko hizkuntza minorizatuen egoera eta jagote eginkizunak aztertzeko.

Abenduaren 8 eta 9an idazkaria eta idazkariordeak beste bidaia bat egin dute, helburu berdinekin, Santiago de Compostela eta Coruñaara, Real Academia Galega eta Galiziako Xuntara. Academian, Domingo García Sabell presidentearekin, Marino Dónega idazkariarekin eta beste zenbait akademikorekin bildu dira eta Manuel Regueiro Hizkuntza Politikarako Zuzendari Nagusiarekin.

Bigarren honetan, beste lan batzuk ere jorratu dira, hala nola, hiztegin-tza, atlasgintza, onomastika lanak, bereziki deituren euskal eta galego ortografietara normaltzea.

Instituteko barne funtzionamendua, aurrekontua, Generalitatekiko hitzarmena, organigrama, etab.

BESTE GERTAKARIEN LABURPENA

Urtarrila

— Miren Azkaratek Donostia hiriko domina jaso du.

— Alfonso Irigoyenek eta Santi Onaindiak Euskal Herriko Bertsolari Elkartearen omenaldia jaso dute.

— *Euskal Herriko Herri Erakundeen Barne Errotulazioa* liburuaren aurkezpena egin da. Lan honetan Euskaltzaindiaren ordezkari Miren Azkarate izan da.

Otsaila

— Zuzendaritzaz landako karguak izendatu dira. Besteak beste: J.-L. Davant eta Kepa Enbeita *Nekazaritza hiztegia* lantzeko erakundearteko langintzan Euskaltzaindiaren ordezkari izendatu dira.

Martxoa

— Pedro de Yrizar euskaltzain ohorezkoaren 4 libururen aurkezpena egin da Nafarroako Diputazioan.

Maiatza

— «Herri-Urrats» Iparraldeko ikastolen jaialdian Piarres Charritton izan da Euskaltzaindiaren ordezkari bezala.

— Juan Luis Goikoetxea, Bizkaiko Irakaslego Eskolako bizkaieraren azterketarako epaimahaiaren Euskaltzaindiaren ordezkari izendatu da.

— Euskaltzaindiak BBK-rekin batera urtero antolatzen dituen sariak iragarri ditu Bilbon.

Ekaina

— Maiatzaren 1ean Bilbon, Eusebio Erkiaga euskaltzain osoa hil dela adierazi da ekaineko hileroko batzarrean.

— «Xabier Lizardi» sariaren berri eman da.

— Daffyd Thomas irakasle galestarra izan da hileroko batzarrean.

Uztaila

— *Orotariko Euskal Hiztegiaren* VI. liburukia kaleratu da.

— Paben, Nafarroako Parlamentuan, Pirinio Atlantikoetako agintariak gonbidaturik, agerizko bilera egin da.


— Iruñeko artzapezpikuari bisita egin dio Zuzendaritzak Nafarroako ordezkariarekin batera.

Iraila

— Baionako Unibertsitate-ikastetxean ospaturiko Linguistikari buruzko jardunaldietan parte hartu dute Jean Haritschelhar eta Beñat Oihartzabal euskaltzainek.

Urria

— Urriaren 1ean, Euskaltzaindiaren 75. urteurreneko hasiera ospatzen da Oñatin.



— Urriaren 29an, P. Broussainen ondarea eskuratu da.

— Paul Gilsou, euskaltzain urgazlearen heriotzaren berri eman da.

— BBK-rekin batera «Txomin Agirre», «Toribio Alzaga», «Felipe Arrese Beitia» eta «Mikel Zarate» literatur sarien epaimahaikideak izendatu dira.

— Paris-ko Sorbonako unibertsitatean hitzaldi bat eman du Jean Haritschelharrek Euskaltzaindiaz aurkezlea G. Rebuschi urgazlea izan delarik.

— Eusko Jaurlaritzak argitaratzen duen *Bidegileak* bildumako 4 liburuki aurkeztu dira Bilboko Euskaltzaindiaren egoitzan, Arturo Campion, Resurrección M. Azkue, Koldo Eleizalde eta Julio Urkixo lehen lau euskaltzainei dagozkienak.

Azaroa

— Iruñean, euskara batuaren historiaz antolaturiko hitzaldietan honako euskaltzain hauek parte hartu dute: Jean Haritschelhar, Ibon Sarasola, Luis Villasante eta Txillardegik.

— Donostian, Fundación Gipuzkoa-Donostia Kutzak argitaratua, Josu Pikabearen *Lapurtera idatzia: XVII-XIX: bilakaera baten urratsak* liburuaren aurkezpena egin da.

Abendua

— Txomin Peillen euskaltzainak, Baionako Unibertsitate-ikastetxeko katedra lortu du.

— BBK-rekin batera, Literatura sarien banaketa egin da, irabazleak honako hauek direlarik:

— Martin Ugalde, 'Txomin Agirre' eleberri saridun, *Pedrotxo* lanagatik.

— Juan K. Lopez Mugartza, 'Felipe Arrese Beitia' olerki saridun, *Garra-
ren eta karroiaren margoak* bildumagatik.

II. Batzordeen organigrama

EUSKALTZAINDIKO BATZORDEEN ORGANIGRAMA

1993-94 urtebikoa

Iker sailburu: Patxi Altuna

I. HIZTEGIGINTZA

Batzordeburu: Ibon Sarasola
Idazkari: Mikel Zalbide

Batzorde hau hiru azpibatordetan banatzen da:

I.1. Orotariko Euskal Hiztegia (OEH)

Arduradun: Ibon Sarasola
Idazkari: Iñaki Segurola
Kideak: Arantza Egia, Gabriel Fraile, Elixabet Kruzeta, Blanca Urgell, Eduardo Valencia.

I.2. Lexikologi Erizpideen Finkapena (LEF)

Arduradun: Miren Azkarate
Idazkari: Jose Antonio Aduriz
Kideak: Patxi Altuna, Xipri Arbelbide, Martxel Ensunza, Patxi Goenaga, Jose M.^a Larrarte, Luis Mari Mujika, Lourdes Otaegi, Beñat Oihartzabal, Elixabet Perez Gaztelu, Andoni Sagarna, Patxi Uribarren, Tomas Uribe-etxebarria, Patri Urkizu, Mikel Zalbide.

I.3. Hiztegi Batuko azpibatordea

Arduradun: Ibon Sarasola
Idazkari: Jose Antonio Aduriz
Kideak: Miren Azkarate, Luis Baraiazarra, Pierre Charritton, Andoni Sagarna, Iñaki Segurola, Mikel Zalbide.

II. GRAMATIKA

Buru: Patxi Altuna
Idazkari: Patxi Goenaga
Idazkariorde: M.^a Pilar Lasarte
Kideak: Miren Azkarate, Pierre Charritton, Andolin Eguzkitza, Alan King, Jose Mari Larrarte, Jesus Mari Makazaga, Jose Antonio Mujika, Beñat Oihartzabal, Francisco Ondarra, Karmele Rotaetxe, Pello Salaburu.

III. DIALEKTOLOGIA

Buru: Txomin Peillen

III.1. Atlasgintza azpibatzerdea

Arduradun: Jean Haritschelhar

Idazkari teknikoak: Gotzon Aurrekoetxea eta Xarles Videgain

Kideak: Isaac Atutxa, Ana Maria Etxaide, Jose Mari Etxebarria, Izaskun Etxebeste, Koro Segurola.

III.2. Euskalkien Ikerketa azpibatzerdea

Arduradun: Txomin Peillen

Idazkari: Iñaki Gaminde

Kideak: Gotzon Aurrekoetxea, Ana Maria Etxaide, Jose Mari Etxebarria, Alfonso Irigoyen, Rosa Miren Pagola, Karmele Rotaetxe, Xarles Videgain.

IV. ONOMASTIKA

Buru: Endrike Knörr

Idazkari: Mikel Gorrotxategi

Kideak: Ricardo Cierbide, Jose Antonio González Salazar, Andrés Iñigo, Alfonso Irigoyen, Jose Mari Jimeno Jurío, Jose Luis Lizundia, Jean-Baptiste Orpustan, Patxi Salaberri, Juan San Martin, Jose Mari Satrustegi.

Exonomastika lantaldea

Dionisio Amundarain

Martxel Etxehandi

Antton Gurrutxaga

Iñaki Irazabalbeitia

Xabier Kintana

Jose Luis Lizundia

Xabier Mendiguren

Beñat Oihartzabal

Jose M. Satrustegi

V. LITERATURA

Buru: Juan Mari Lekuona

Batzorde hau bi azpibatzerdetan banatzen da:

V.1. Herri Literatura

Arduradun: Antonio Zavala

Idazkari: Pello Esnal

Kideak: Jose Maria Aranalde, Antton Aranburu, Juan Manuel Etxebarria, Jesus Mari Etxezarreta, Alfonso Irigoyen, Jose Mari Iriondo, Emile Larre, Abel Muniategi.

V.2. Literatura Ikerketa

Arduradun: Juan Mari Lekuona

Idazkari: Jon Kortazar

Kideak: Xabier Altzibar, Aurelia Arkotxa, Gorka Aulestia, Jean Haritschelhar, Juan Cruz Igerabide, Luis Mari Mujika, Txomin Peillen, Ana Toledo, Patri Urkizu.

Aholkulariak:

Jon Casenave, Jon Juaristi, Jesus M. Lasagabaster, Jean-Baptiste Orpustan, Juan Otaegi, Bittor Uraga.

JAGON eta Egiturazko batzordeak

VI. JAGON SAILA

Buru: Endrike Knörr

Idazkari: Andres Urrutia

Kideak: Ramuntxo Camblong, Pierre Charritton, Andres Iñigo, Xabier Kintana, Federico Krutwig, Juan Mari Lekuona, Jose Luis Lizundia, Jose Mari Satrustegi, Manuel M. Ruiz Urrestarazu, Jose Mari Velez de Mendiababal, Mikel Zalbide.

Aholkulariak

Jose Antonio Arana Martija

Juan Antonio Letamendia

Patxi Zabaleta

VII. AZKUE BIBLIOTEKA

Buru: Jose Antonio Arana Martija

Idazkari: Juan Jose Zearreta

Kideak: Federiko Barrenengoa, Jon Bilbao, Juan Luis Goikoetxea, Jose M. Larrarte.

VIII. ARGITALPENAK

Buru: Jean Haritschelhar

Eragile/Idazkari: Ricardo Badiola

Kideak: Juan Mari Lekuona, Jose Antonio Arana Martija, Endrike Knörr, Patxi Altuna, Txomin Peillen, Ibon Sarasola.

IX. JURIDIKOA

Buru: Jean Haritschelhar

Idazkari: Jose Luis Lizundia

Kideak: Jose Antonio Arana Martija, Endrike Knörr, Juan Mari Lekuona, Abel Muniategi, Andres Urrutia, Patxi Zabaleta.

Batzorde suntsikorrak

EUSKARA BATUKOA

Buru: Patxi Altuna

Idazkari: Pello Salaburu

Kideak: Miren Azkarate, Ibon Sarasola, Beñat Oihartzabal, Luis Villasante.

75. URTEURRENEKOA

Akademi azpibatzerdea

Jean Haritschelhar, Juan M. Lekuona, Endrike Knörr, Jose Antonio Arana Martija, Patxi Altuna, Miren Azkarate, Pello Salaburu, Beñat Oihartzabal, Ibon Sarasola, Luis Villasante

Antolakizun azpibatzerdea

Endrike Knörr, Jose Luis Lizundia, Juan Jose Zearreta, Pello Telleria, Ricardo Badiola.

AHOSKERA BATZORDEA

Buru: Patxi Altuna

Idazkari: Iñaki Gaminde

Kideak: Jose Luis Alvarez «Txillardegi», Pello Esnal, Juan Manuel Etxebarria, Jose Ignacio Hualde, Lourdes Oñederra, Rosa Miren Pagola, Xarles Videgain.

III. Iker Saila



I. Batzordea: Hiztegitza

Batzorde honek hiru azpibatzerde ditu, hots:

- *Orotariko Euskal Hiztegia*
- Lexiko Erizpideen Finkapena
- Hiztegi Batukoa



Orotariko Euskal Hiztegia

OROTARIKO EUSKAL HIZTEGIA

Orotariko Euskal Hiztegia burutzen ari den lantaldea ohizko lan eta egitekoen lotu zaie 1993. urtean ere, hots, euskararen hitz-altxorraren biltze eta aztertze-lanari.

1993an kaleratu da Hiztegiaren 6. liburukia, *DAG-ERD* zatia besarkatzen duena. 822 orrialde ditu eta bertan 7.976 hiztegi-sarrera ageri dira. Beraz, 6. liburukiak 5.ak baino 2.000 sarrera gehiago ditu.

Aipatzekoa da, bestalde, E. Kruzeta lankidea denbora osoz erredaktatze lanetara igaro izanaren ondorioz, Ainhoa Aranburu aldi baterako hartu zela testu-zuzenketari dagozkion lanak burutzeko. 1993ko martxotik aurrera, berriz, eta honen ordeztan, Ainhoa Otamendi sartu da lantaldean, bekadun moduan, zuzenketa lan horiek burutzeko.

1993ko lanen zehaztapena

OEH-ko lantaldeak burututako lan desberdinen zehaztapena bukaerako eranskinetan ematen da xeheki banatua.

Laburbilduz esan daiteke:

— erredakzioari dagokionez, *ERR-GA* bitartea landu dela.

— zuzenketa-lan desberdinetan, VI. liburukiari dagozkion lanak (*DAG-ERD*) bukatzeaz gainera, *ERRO* (testu zuzenketan), *ESA* (sarrera-buruen zuzenketan) eta *EST* (zuzenketa filologikoan) zatietaraino egin dela.

1. ERANSKINA

1993ko ZUZENKETA-LANAK

	KOORDINAZIOA ETA ZUZENKETA		TESTU ZUZENKETA	SARRERA BURUEN ZUZENKETA	ZUZENKETAK FIL. ETA LEXIK. MAKINARATZEA
Urtarrila	eper...-/eran +eransk.	entzunaldi	egos-/ekol- ekon-/held-	em...-/epel	enbar-/entzun ea-/egap-
Otsaila	eran- / ern... elkar	eregi	ekon-/held	epel...-/er...	entzun.../ern-
Martxoa	zuzenk. + gehigarriak	eregi / ern- +elkar	ele-/en...		egap- / ern- + gehigarriak
Apirila	2. zuzenk.	2. zuzenk.	eo-/era...	aldizkariak, etab.	2. zuzenketak
Maiatza	2. zuzenketak gehigarriak	2. zuzenketak	eo-/era...		2. zuzenketak
Ekaina	azken ikutuak (2 aldiz)			ero/err-	azken ikutuak (2 aldiz)
Uztaila	ero-errebes		ere/erk-	err-/err-	
Abuztua	erreb-/errod-		erk-/erra-	err-/err-	
Iraila	errod-/es-		erra-/erre		
Urria	esk-/esk-		erre-/erre-	err-/err-	ero-/esa-
Azaroa	esk-/esp-	erd-	erre-/erro-	err-/es-	esa-/eska-
Abendua	esp-/est-	esa-	erre-/erro-	es-/	esk-/est-

2. ERANSKINA

1993ko ERREDAKZIO-LANAK

Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua
erro- erru- ers-	ers- ert- eska-	eska-	eska- eske- eski-	eski- esko- eskr- esku-	esku-		esku- ez	ez ezin-	ezin- ezj- ezk-	ezk-	gas- gat-
errek- erren- esa-	esa-	esl- esn- est-	estal- estam- estaz-	este- esti- esto-	esto- estu- hertz-	hertz- ezab- ezag- ezb-		ezb- ezl- ezu-	ezl- ezn- ezt- ezu-	ezt- ezu- gap- gar-	gap- gar-
errep- erres-	erres- erret- esd- hesi-	hesi- espa- eso- espe-	espe- espi-	esp... etza- etze- etzi-	etzi- etzan-	etzan- euli- eur- eus-		eusk- eutsi ex- ezo- ezp-	ezp- fi-	fio- fiz- fl- fo-	fl- fo- fr-
elk...- elz-	deus.../ dena	herri-	ete- etern-	etern- etor-	etor- etxe...	herri ete-eten etsa-etse etr		ezer ezetz- ezi-	eze- ezil- gab-	gab- gai-	gai-
erreg- errek-	errege	erreg- eta	eta etxe	etxe	etxe etsi	eta	ezb- ezin	heze- ezdeus	fa-	fal-	fam-

Lexiko erizpideen finkapena

LEXIKO ERIZPIDEEN FINKAPENERAKO BATZORDEA

1993ko egitasmoan esaten zenari jarraiki, erdal atzizkien euskal ordainak zertan diren aztertu du LEF batzordeak urte honetan zehar.

Corpusa eta adibidetegia osatu

Horretarako, egitasmoan esaten zen bezala, berariazko corpus bat aztertu eta adibidetegi zabal samarra lortzen saiatu dira batzordekideak. Hauxe izan da hain zuzen, 1993ko lehen lau hilabeteetako lana: corpusa hautatu, irakurri eta hustuketa-lanak egitea. Aldi berean, garai batekoak eta berriagoak hustutzeko ahalegina egin da, eta berriagoen artean ere, «sentiberatasun» edo «filosofia» desberdina izan dezaketen itzulpen-motak bildu nahi izan dira. Hauek dira hustu diren dokumentuak 11.000 fitxatako adibidetegia osatzeko:

— *Nekazaritzako irakurraldiak* (Gregorio Mujikaren itzulpena), Donostia, 1933: 120 fitxa.

— Elizbarrutietako dokumentu elebidunetatik: «Al servicio de una vida más humana / Gizalegezko bizitzaren zerbitzura» (1992); «Dichosos los que trabajan por la paz / Zorionekoak bakegileak» (1991); «Creer en tiempos de increencia / Fededun izan federik ezak jotako egunotan» (1988): 638 fitxa.

— Euskaltzaindia: *El libro blanco del euskera / Euskararen liburu zuria*, Bilbo, 1978: 131 fitxa.

— Pascal/Narbaitz: *Gogoetak*, Baiona, 1980: 103 fitxa.

— Administrazioek sortzen dituzten dokumentuen erakusgarri bat:

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 1988, 1992 eta 1993ko zatiak: 856 fitxa.

Nafarroako Aldizkari Ofiziala: 219 fitxa.

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala: 353 fitxa.

IVAP/HAEERen *Europako Ituneen Hiztegia*: 124 fitxa.

Corpus hau osatzeko, egoki iruditu zaio batzordeari lehendik eginak zeuden hustuketez ere baliatzea, nahiz hauek ez duten testuingurua jasotzen:

- *Agintaritza-aldizkarietako hitz-bilduma*, Gasteiz, 1985: 468 fitxa.
- UZEIn dagoen *Irakasmundua* izeneko fitxategia, (1975-1985 epealdiko 200dik gora testuliburutan erabilitako hiztegia ezagutzeko egina): 5.550 fitxa.
- UZEIko *Kultura lexikoa* deritzan fitxategia (Orixe eta Zaitegiren testuetako formak, edo *Branka, Egan, Euzko Gogoa* eta *Jakin* aldizkarietakoak jasotzen dituena): 950 fitxa.
- P. Altuna: *Hablar en euskera. Diccionario básico con 13.000 palabras de uso habitual. Castellano-Euskera*, Pacharán Zoco/Ed. Mensajero, Bilbo, 1991: 1.215 fitxa.
- K. Goena / A. Zaratain / J. Oregi: *Giza-bizia. Iztegia*, CAP, Donostia, 1973: 325 fitxa.

Fitxa hauek ordenadorean sartzea Donostiako ordezkarietako idazkarien lana izan da gehienbat, baina LEF batzordearen bekadunak ere laguntza eskaini du datu-baseari forma bateratua emateko. Halaber, berak egokitu du UZEIko *Irakasmundua* eta *Kultura lexikoa* izeneko fitxategietako informazioa, datu-base berriaren egiturara moldatuz.

Eratopen-atzizkiak

Batzordekideak hustuketa-lana egiten ari ziren bitartean, Metodologia txostena prestatu du Miren Azkaratek. Ondoren, irailetik aurrera, erdal aurrizkiak nola ordezkatu diren aztertzeari ekin dio batzordeak.

Tartean, ordea, Euskaltzaindiaren azken urteetako egitasmo nagusia sortu da: 75. urteurrena dela eta, 1994ko urrian egitekoa den Biltzarrarena, alegia. Biltzar handi horretarako txostena prestatu eta eztabaidatzea izan da LEF batzordearen bigarren eginkizun nagusia. Batzordearen azken urteetako lana kon-tuan izanik, eta Hitz Elkartuei buruzko lanak eta gomendioak emanak izanik, Eratorpenari heltzea iruditu zaie egokien batzordekideei: atzizkien inguruko gomendioek osatuko dute, beraz, txostena. Biltzarrerako egin den egutegiak, gainera, erdal aurrizkien azterketa zertxobait atzeratzera behartu du batzordea, lehen-tasuna Biltzarreko txostena prestatu eta eztabaidatzeari eman behar izan zaio eta.

Aipatutako lana, honako bilera-egunetan burutu du batzordeak, egun ba-koitzeko aztergaiak ondokoak izanik:

1. Maiatzean egin du lehen bilera, gai-zerrenda hau izanik: Metodologiaz-ko txostena, Miren Azkaratek prestatua; Adibidetegiaren berri emate; ondoko lana bideratzea: udazkenerako txostenak banatzea, alegia.
2. Irailean egin da bigarren bilera, gai bakarra, Miren Azkaratek prestatu-riko «LEF Batzordearen Txostena: Eratorpenaz» aztertu eta eztabai-datzea izanik. Jasotako oharrekin bigarren idazketa prestatzekotan ge-ratu da txostengilea.

3. Abenduaren 3an berriro bildu da batzordea, honako txostenak aztertzeko: E. Perez Gaztelu: «*ambi-, anfi-, bi-, cuatri...* aurrizkiak»; L. Otaegi: «*des-* aurrizkia»; X. Arbelbide: «*re-* aurrizkia» eta *Gogoetak* liburuan (Narbaitzen itzulpenean) ageri diren aurrizkien bilduma.
4. Abenduaren 22an egin du batzordeak azken bilera, erdal aurrizkien azterketarekin jarraituz: J. M. Larrarte: «*con-* eta *equi-* erdal aurrizkien euskal ordainak»; B. Oihartzabal: «Leku-denborazko erdal aurrizkien ordainak» (hastapena); P. Goenaga: «*in-* erdal aurrizkiaren ordainak euskaraz» (hastapena).

1994ko udaberrian bukatuko du LEF batzordeak gai honen azterketa eta udazkenean aterako azken ondorioak.

Erorpena

Azkenik, aurreko urteetan landu eta oraindik argitaratu gabe dauden gaiak lantzen eta moldatzen aritu da batez ere bekaduna. Batetik, *Hitz-Elkarke-ta/2* liburukirako adibidetegiko testuinguruak osatu, hutsak zuzendu eta azpisailkapeneko kodeak eransten. Bestetik, *Hitz-Elkarketa/2* liburukiko testua osatuko duten txostenak modu eta formato bateratuan ordenagailuan sartzen. Modu bereko lana egin du eratorpenari dagokionez ere: adibidetegia osatu eta zuzendu, eta itxura bereko atzizkiak —hasieran batera zetozenak— bakoitza bere sailera eraman zegozkion adibide eta guzti. Bigarrenik, batzordekideek aurkeztutako erator-atzizkiei buruzko txostenak berridatzi ditu, txosten guztiei egitura bera emateko asmoz; adibideen aipamenak ere osatu eta sistematizatu ditu bekadunak.

Bi hitzetan esanda, beraz, hau izan da LEF batzordearen eta horko bekadunaren lana 1993. urtean zehar: batzordekideena, erdal aurrizkien euskal balio-kideen azterketarako adibidetegia prestatu eta azterketari berari ekitea; horrekin batera, 1994ko urriko Biltzarrerako txostenaren lehen idazketa prestatzea. Bekadunarena, gai horietan laguntza eskaintzeaz gain, aurreko urteetako aztergaiak argitaratzeko behar den osatze eta zuzentze-lana egitea.

Hiztegi Batua

HIZTEGI BATUKO BATZORDEA

Lehen aztergaia (hau da, «Batasunerako hiztegia» [1968] eta «H letraren ortografi arauak» [1979] biltzen dituen hitz-zerrenda) 1992ko udazkenean burutu ondoren, bigarrena lantzeari ekin zion batzorde honek azaroko eta abenduko bileretan, hots: *Merkatalgo Izendegia* (1974 eta 1984), *Zortzi urte arteko ikastola Hiztegia* (1975), *Matematika hiztegia* (1978), *Maileguzko hitz berriei buruz Euskaltzaindiaren erabakiak* (1986) eta beste zenbait hiztegi(txo) jasotzen dituen zerrenda aztertzeari.

Zerrenda horretako formak ikertzen ari izan da batzordea 1993ko urtarrietik iraila arteko bederatz bi bileretan, kasuan kasuko erabakietara iritsiz eta erabakion berri jasoz berariazko dokumentuetan.

Dokumentu horietako batean, zerrendatuen bertan, forma bakoitzari dagokion erabakia, eta horretara iristeko aipatu diren informazio eta irizpideak biltzen dira. Adibidez: forma bat beste gabe onartzekoa nahiz baztertzekoa dela erabakitzean, horixe adierazten da; informazio osagarriaz horniturik azaldu beharrekotzat ematean, aldiz, informazio horren lehen hurbilketa eskaintzen da: erabilerak ezagutuz berrikusi beharrekoa denean, Orotariko Euskal Hiztegiko eta Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistematikoko corpusetako datuak ezagutzeko eskatzen zaio UZEIko prestalaneke taldeari (Euskaltzaindiarekin du UZEI elkarteak lan honetarako hitzarmena), eta hurrengo pasaldian datu horien argitan erabakitzeak dela seinatzen da (inoiz bestelako informazio-bideetara ere jotzen da, jakina: testu-liburuetatik bildutakora, adibidez, edo Administrazioaren erabakietara, edo sektore jakin bateko usadioetara, edo pertsona jakin bati kontsulta egitera, e.a.). Erabilerak ezagunak izanik edo/eta eskueran edukiz, ohar morfo-sintaktikoz nahiz adibidez janztega egokitzeak jotzean, erantsi beharrekook seinatzen dira; forma baztertuen ordezkioak proposatzen, e.a.

Bidenabar, «Irizpide eta oharrak» izeneko dokumentua etengabe egokitzuz doa batzordea, bileretan eta forma konkretuen aurrean aipatzen direnak sistematizatzeko, hierarkiarik egin beharra dagoenean ongi formalizatzeko, iritzi-emaileen oharrei dagokien arreta eskaintzeko eta, ororen buruan, lanaren oinarriak argitu, zehaztu eta komeni den lekuan jakinarazteko. Formalizazio-ahalegin hau, bestalde, zerrendatutako ohar libreetan ere isladatzen da, gero eta sistematikoagoak egitera behartuz.

Hirugarren dokumentu batean jaso dira bai euskaltzainek eta bai iritzi-emaileek lehen aztergaiari egindako oharrak: ohar orokorrak nahiz irizpideei dagozkienak, batetik, eta, bestetik, forma jakinei buruzko puntualagoak.

Idatziz eskainitako argibideez gain, ahozko ekarririk ere egin dute euskaltzainek, martxoko eta apirilko bileretan berariaz aztertu baitituzte batzordearen irizpideak.

Dokumentu-mota guztiok jarriko dira bai euskaltzainen eta bai iritzi-emaileen eskuetan. Bigarren aztergaiko erabakiei buruzko iritziak eskatzea atzeratu egin da zertxobait, hirugarrenekoei buruzkoekin lotzeko. Arrazoia da, bera bakarrik banatuz gero, desorekatua, ulergaitza eta nahasgarria gertatuko litzatekeela aztertu behar duenarentzat (lehen aztergaiarekin gertatua da horren lekuko): izan ere, erabileremu oso mugatuetakoa formak ageri dira maiz eta, aldiz, oinarri-oinarrizkoak eskas dira, abiapuntuko zerrendetan ez zetozelako. Horregatik, zatika helaraziko zaizkie iritzi-emaileei aztergai honetako erabaki-proposamenak, hirugarren aztergaiko multzo esanahitsuetan txertatuz.

Urtean zehar egindako beste zazpi bilerak, hirugarren aztergaia lantzen eman ditu batzordeak. Hirugarren aztergai honen oinarria, EEBSko corpusean maiztasunik handienez ageri diren 5.000 lemak dira. Lema horiez gain, aurreko bi zerrendei batzordeak eta iritzi-emaileek egindako oharrak biltzen ditu eta, gainera, pasaldi honetan txertatzekoak diren forma tradiziozkoak eta horiei buruzko informazio osagarria.

Urrats honi ekitean, metodologiazko eta jarduerazko hainbat puntu erabaki beharra izan du batzordeak; eta beste hainbat zehaztuz joan da, azterketan aurrera egin ahala. Hona, laburbildurik, horietan esanahitsuenak:

1. Mota berriko formak aurkezten baititu hirugarren zerrendak, dagozkien ohar eta irizpideak ere landuko dira, aurrekoetan bezala.
2. Komeni denean, formari dago(z)kion adiera(k) argituko d(ir)a, erabateko zehazpenera joko ez bada ere oraingo pasaldi honetan. Animalia eta landare-izenetan, gainera, espezie mailako taxonomi izena emango da.
3. Zerrendako oinarriaren eratorri, konposatu eta esapideak txertatuko dira aztergaian.
4. Bestelako formarik ere txertatuko da, irizpideon arabera:
 - 4.1. OEHko corpusean erabilera-berme esanahitsua dutenak, eta zerrendari oreka-osotasunak emateko egokiak direnak;
 - 4.2. forma-aniztasuna egonik, erraz konpontzekoa denean (cf. *abaro*);
 - 4.3. forma ezagunaren sinonimo ez hain ezaguna izanik, hizkuntza aberasteko aukera eskain daitekeenean (cf. *abarrakitu*);
 - 4.4. premia jakin bati erantzuteko modua eskaintzen duenean (cf. *abeniko*, *abenikozko* 'convención/convention, convencional/conventionnel' adierazteko; edo *aberrigabe*, *abian jarri*, *adingabe/adin-dun*);
 - 4.5. *-t(z)e* osaerako aditz-izenak, tradizioak izen-erabileran bermatuak direnean (cf. *abiatze*).
5. Lan-erritmoa lastertzeko, prestalana aldeztetik egin eta aurkeztea eskatu zaio UZEIko taldeari, OEH eta EEBS corpus bietako datuei darizkien ondorioak erraz haztatzeko moduan eskain ditzan.

Horrela, *a - birjina* formen artekoak ikusi ditu batzordeak azken zazpi bileretan, bilerako berrehun bat forma erabakiz.

A letraz hasitako forma ikusi guztien zerrenda prest izango da gutxi barru, iritzi-emaileen artean banatu ahal izateko, irizpideen sistematizazioarekin batera. Aipatu bezala, dokumentu bakarrean bildu dira horretarako hiru aztergaietakoak (forma, erabaki eta ohar): 1.500 pasatxo forma dira guztira, eta horietan:

931 beste gabe onartzekoak dira batzordearen ustez,
448 oharren bat erantsiz eskaintzekoak,
97 txostenaren argitan (berr)ikustekoak,
147 baztertzekoak.

Azkenik, hainbat formak batera dituzten arazo komunak ikertuko dituzten txosten berariazkoak landu eta aztertzeko erabakia gogoratu behar da. Dagoeneko lantzen hasiak daude batzuk: «*x-* eta *tx-* hitz hastapenean» deituan Beñat Oihartzabalek egin du lehen planteamendu orokorra; «Maileguzko hitzetan >*g*< ala >*j*<» izenekoaren lehen idaztaldia aurkeztua du Mikel Zalbidek. Informazioa biltzen ari da prestalaneke taldea beste hainbat kasutan, adib: maileguetako (*e*)*r-* hasierakoak, *-y* amaierakoak, *-ll-* salbuespenezkoak, *-aia/-aje* amaierak, etab.

II. Batzordea: Gramatika

GRAMATIKA BATZORDEA

Aurreko urtean juntadurari buruzko azterketa hein handi batean amaitutzat ematen bazen ere, artean argitu beharreko hainbat puntu bazirela aitortzen zen. Puntu hauek lehen hiru hilabeteetan konpontzeko gai izango zela uste zuen batzordeak eta liburuki berriaren argitalpena prest izango zuela. Gauzak, ordea, uste baino gehiago korapilatu dira eta juntaduraren azterketarekin urte osoan zehar jarraitu du batzordeak.

Bilerak

Urtarrila eta Abendua bitartean Gramatika batzordeak osoko hamabi bilera egin ditu eta beste bat ere bai batzordeño batek. Beraz, hamahiru bilera guztira. Bilerotan bi bidetatik joan da batzordearen lana:

- a) *Juntaduraren azterketa*. Hainbeste hilabeteetan batzordeak aztertu eta eztabaidatu duen gaia da hau. Orain arte euskal gramatiketan aski aztertua ez izateak, berria izateak alegia, ekarri dio batzordeari luzamenduetan ibili beharra. Dena den, oraindik ere badira hutsuneak, baina prestatu den lanak aski sakontasun eta fidagarritasun baduela uste izan du batzordeak eta, horrenbestez, juntagailuen lana, funtsean bere horretan uztea erabaki da, amaitutzat ematea. Hortaz, liburukia azken ukituen zai (erreferentziak zehaztu, terminologia batu, aurkibideak prestatu, eta abar) geratu da, berehala inprimategira eramateko.
- b) *Euskaltzaindiaren 75. urteurrena*. Urtemuga honen ospakizunak direla eta, Gramatika batzordeak ere bere lana eskaini ahal izateko, zenbait bilera berezi egin behar izan ditu, batetik, aurkeztu nahi liratekeen gaien zerrenda prestatzeko eta, gero, zerrenda horretako gaiak eztabaidatzen hasteko.

Batzordearen emaitza hiru ataletan banatzea erabaki da:

- Batetik, euskara batuari dagozkion zenbait katramila aztertu nahi lirateke, batzuetan, jadanik eman diren zenbait arau betetzen ez direlako eta beste batzuetan, betetzeak zailtasunak sortzen dituelako. Halaber, oraindik erabakitzeke dauden zenbait punturi buruzko proposamenak ere egin nahi lituzke batzordeak.

- Bigarren atal bat euskara batuari baino areago euskara zuzenari dagozkion gaiek osatuko dute. Han-hemenka zabaltzen ari diren zenbait akatsi bidea ixteko, eredu zuzenak eta tradizioan oinarrituak eskaini nahi dira. Gai hauen inguruan txosten hauek prestatu dira: *Honez gero; Dagoeneko; Iraun, balio, kosta, luzatu, neurtu, pisatu; Bost durotan garestitu; Topikoa bihurtu; Ez daukazu zertan nigar egin beharrik; Baita ere/ezta ere; Ongi etorri; -A bokalaz amaitzen diren izenen mugagabeko kasuak; Konpletiboen inguruko gorabeherak; Ekartzea merezi du.*

Adibidetegia

Gramatika batzordeak bere lana euskal tradizioan ongi oinarriturik egin nahi du. Hori dela eta, literaturari dagokion bezainbatean, *Orotariko Euskal Hiztegirako* egindako corpusa du baliagarri batzordeak. Milaka esaldik osatzen dute Juntaturari buruzko lana aurrera eramateko eskuratu behar izan den adibidetegia. Batetik, juntagailu bakoitzari buruzko adibideak, eta bestetik, gertatzen diren nahiz debekatuak diren morfema konbinazioak aztertze bidea emango digutenak. Horrela lortutako adibidetegi hau guztiz funtsezkoa da euskal usadioa ezagutu nahi bada. Biltze lan hau, bileretatik kanpo egin beharrekoa, ordu askotakoa izan da eta J.M. Makazaga batzordekidea izan da horren arduraduna.

Euskal Gramatika Laburra

Azkenik, aipatu behar da perpaus bakunari buruz orain arte Gramatika batzordeak argitaratu dituen liburukien gainean Pello Salaburu batzordekideak moldaturik argitara eman den liburuki berria ere: *Euskal Gramatika Laburra: perpaus bakuna.*



III. Batzordea: Dialektologia

Euskal Herriko hizkuntz atlasa (EHHA)

Euskal Herriko hizkuntz atlasa

EUSKAL HERRIKO HIZKUNTZ ATLASA

Joan berri den urtean Euskal herriko Hizkuntz Atlaseko lantaldea datu-sarreran aritu da oso-osoan, inkestagintza burutu ondoren.

Beste zeregin guztiak alde batera utzi ditu lehen ataleko datuak lehenbaitlehen informatizatu asmoz.

Inkestagintza

Xarles Videgainek falta zitzaizkion inkesta hondarrak amaitu ditu urtearen lehen hilabeteetan. Honako hauek amaitu ditu: Arnegi, Altzai, Eskiula, Urdiñarbe, Hendaia, Urketa, Hazparne, Arruta, Muntori, Altzürükü, Armendaritze, Azkaine eta Bardoze.

Ana M. Etxaidek Zugarramurdi amaitu du; Abaurregaina eta Eugi falta ditu. Nahiz udarako amaituko zituela uste izan, oraindik ez ditu guztiz bukatutzat eman. Oderitzeko azken ikutuak egin ditu Koro Seguroiak.

Urtearen hasieran amaitu dira baita ondoko inkesterri hauetako azken ikutuak: Gamarte, Uztaritze, Beskoitze, Behorlegi eta Donibane-Lohizune.

Datu-sarrera

EHHA lantaldean egun osoko dedikazioa duten lau kideak datu-sarreran aritu dira, datuak prestatu eta informatizatzen, alegia. Aipatu behar da lankide baten baja luzea ezagutu duela lantaldeak.

Datuen prestaketa. Datuen informatizaziorako sistema aldatu zenetik (1992. uztaila) eta datu-sarrera bertikala (inkestaz inkesta) egin ordez horizontala (atalka) egitea onartu zenetik bi zeregin bete behar dituzte lankideek: datuak prestatu egin behar dituzte lehenik eta datu horiek informatizatu gero.

Datu prestaketan 1993. urtean zehar aritu izan da lantaldea, lehenik baikoitzak berak jaso eta transkribatuak prestatzen, eta ondoren beste lankide batzuk egindakoak. Hona hemen urte honetan prestatu diren inkestak:

- Bizkaia (29): Fika, Larrabetzu, Arrieta, Lemoa, Errigoiti, Mañaria, Berri, Bolibar, Leioa, Zollo, Lekeitio, Ondarroa, Orozko, Zeanuri, Euba, Ibarruri, Mendata, Kortezubi, Elantxobe, Arrazola, Gizaburuaga, Zeberio, Etxebarri, Sondika, Busturia, Laukiz, Bermeo, Bakio eta Lemoiz.

- Gipuzkoa (7): Ibaeta (Donostia), Hondarribia, Ikaztegieta, Orio, Lasarte, Araotz (Oñati) eta Oñati.
- Nafarroa (9): Goizueta, Luzaide, Eaurta, Arbizu, Oderitz, Zugarramurdi, Urdiain, Etxaleku eta Alkotz.
- Lapurdi (15): Senpere, Azkaine, Sara, Ahetze, Arrangoitze, Itsasu, Uztaritze, Makea, Donibane-Lohizune, Mugerre, Bardoze, Beskoitze, Hazparne, Hendaia eta Urketa.
- Nafarroa Beherea (16): Behorlegi, Jutsi, Larzabale, Aldude, Arruta, Gamarte, Bidarra, Arnegi, Irisarri, Uharte-Garazi, Arboti, Baigorri, Isturitze, Ezterenzubi, Bastida eta Armendaritze.
- Zuberoa (11): Ürrustoi, Altzai, Phagola, Larrañe, Barkoxe, Santa Grazi, Suhüta, Urdiñarbe, Muntori, Eskiula eta Altzürükü.


Etengabeko inkesta prestaketaren ondorioz guztira 87 inkesta gertu utzi dira informatizatzeko.

Datuen informatizazioa. Datuen prestaketaren osteko informatizazioari ere ekin dio lantaldeak joan den urtean zehar. Gorago aipatu bezala lehen atala bakarrik informatizatu da. Hona hemen informatizatu diren inkestak herrialdez herrialde:

- Bizkaia (15): Mungia (osorik), Fika, Larrabetzu, Arrieta, Lemoa, Erri-goiti, Mañaria, Bolibar, Ondarroa, Lekeitio, Gizaburuaga, Kortezubi, Ibarruri, Mendata eta Euba.
- Gipuzkoa (28): Oiartzun, Pasaia, Asteasu, Tolosa-Ibarra, Elduain, Amezketza, Orexa, Beasain, Elgoibar, Eibar, Errezil, Beizama, Arroa, Itsaso, Urretxu, Mendaro, Ataun, Zegama, Azkoitia, Deba, Ibaeta (Donostia), Hondarribia, Ikaztegieta, Orio, Getaria, Lasarte, Oñati eta Araotz (Oñati).
- Nafarroa (13): Etxalar, Donamaria, Xuarbe, Igoa, Leitza, Zugarramurdi, Goizueta, Eaurta, Dorrao, Arbizu, Urdiain, Etxaleku eta Ezkurra.
- Lapurdi (7): Ahetze, Arrangoitze, Uztaritze, Itsasu, Hazparne, Makea eta Hendaia.
- Nafarroa Beherea (5): Bidarra, Beorlegi, Armendaritze, Gamarte eta Baigorri.
- Zuberoa (3): Sohüta, Muntori eta Eskiula.

Urtean zehar guztira 71 inkesta informatizatu dira (bat osoki egin delarik). Zenbaki hauek aztertzean kontuan izan behar den gertakari bat aipatu behar da: datu sartzailerek beraiek bildu eta transkribatu ez dituzten inkestak sartzan ari direneko gainarazoak, hain zuzen ere. Gainarazo hauen eragina datuak sartzeko unean gertatzen dira batetik eta datuen zuzenketa sisteman bestetik.

Datu-sarreraren egoera. 1993. urtearen amaieran lehen ataleko datu-sarrerak egoera hau ezagutzen du:



- Inkestean prestakuntza: 140 inkesta (%96,6) prestatuta dago. Prestatzeko 5 inkesta falta dira.
- Informatizatuta: 94 inkesta (%64,8) informatizatuta dago. Informatizatzeko 51 inkesta falta dira.

Ondoko taulan azaltzen da lurraldeka datu-sarreraren egoera. Batetik prestaketa mailan zer dagoen eginda eta zer falta den, eta bestetik informatizapenean.

DATU - SARRERA				
	PRESTAKETA		INFORMATIZAPENA	
	EGINDA	FALTA	EGINDA	FALTA
Bizkaia	36	0	21	15
Araba	1	0	1	0
Gipuzkoa	35	1	35	1
Nafarroa	23	4	20	7
Lapurdi	15	0	7	8
Naf. Behe.	18	0	7	11
Zuberoa	12	0	3	9
Guztira	140	5	94	51

Datu-sarrerak izandako antolamenduzko arazoak. Lehenago esan bezala, kasu batzutan ez du pertsona berak inkesta egin, prestatu eta ordenadorean sartu. Arazo hau aurrikusia bazegoen ere, erabat baieztatu da joan den urteko ekainean. Ez da erraza suertatzen elkarren letra-moldea ulertzea, testuen interpretatzea, sistema asmatzea.

Bi alorretan eragiten du batez ere honek: interpretatzerakoan sortzen diren zailtasun eta nekeak, eta bestetik, transkribatzaileak idatzitakoa ulertzen ez denean egin beharreko kontsultak. Lehenengoa neurtzea zail samarra bada, bigarrenaren ondorioak begien bistakoak izaten dira: kontsultak, eta behin baino gehiagotan gertatu izan da zinta berriro entzun beharra. Traskrizio-lana egin ondoren, inkesta-egileari bidaltzen zaio azken testua ikus eta zuzendu dezan. Gai

honek lankide desberdinen lanean izan du eragina, baina ezinbestekotzat jo da datuen kalitateari eutsi nahi bazaio.

Aplikazioari buruzkoak. Lehenik zera esan behar da, joan den urteko martxoan Baionan ere kokatu zela Atlasaren aplikazio informatikoa.

Datu-sarrera ordenadorean egiten denez, sarritan gertatu izan dira era bateko edo besteko okerrak: manipulazio okerrak eragindakoak, ordenadoreak backup egitean informazioa galdu denekoak, etab. Era honetako okerrak zuzentzeko lehenik atlasaren Bilboko zuzendaria saiatu da konpontzen, eta ezinezkoa gertatu zaionean EJIeko teknikoengana jo da.

EHHA proiektuaren eguneratzea

1993. urtean zehar ezer gutxi aurreratu da langintza honetan. Proiektuaren zuzendariek, datu-elaboraketaren diseinua dela eta EJIekin lanean zebiltzalarik, urtearen hasieratik bertatik geldirik egon da plana proiektuaren aplikazioa eta kartografia-arloa gehiago zehaztu zain.

Bien bitartean, Euskaltzaindiak beste aukera batzuk arakatu ditu, Iruñeko eta Bartzelonako kartografia-etxe bi, besteren artean. Atlasaren zuzendariek Baionako Institute Universitaire de Technologie delakoarekin ere izan dute harremanik, elkar-laneko bide posibleak aztertzeko.

Egindako bilerak

Gai desberdinetarako bildu dira EHHako batzordekideak. Proiektuaren jarraipena egiteko eta sortzen diren arazoak konpontzeko egin dira bilera hauek.

Batetik, proiektuaren zuzendaritza bildu da 9 aldiz, datu-sarrera planifikatzeko eta jarraipena egiteko, eta hurrengo pausuez aritzeko. Datu-sartzaileekin lau bilera egin dira, azaldu diren arazoez eta lan-erritmoaz aritzeko. Euskaltzaindiaren Zuzendaritzarekin bi bilera egin dute proiektuaren zuzendariek, eta bilera bana Gasteizko EJIe, Iruñeko Tracasa eta Baionako I.U.T. elkarteekin.

Beste zeregin batzuk

— *Nazioarteko Dialektologia Biltzarra. Agiriak* (Iker 7) liburuaren aurkezpen bi egin dira: Bilbon apirilaren 2an (egoitzan) eta Baionan (unibertsitatean) maiatzaren 4an.

— ALE (Atlas Linguarum Europae). Jakina denez Gotzon Aurrekoetxea eta Xarles Videgain euskararen ordezkari dira Euskal Batzordea osotuz. Urtean zehar bi bilera egin ditu: Budapest-en apirilean eta Grenoblen urrian. Bestalde, ondoko txosten hauek burutu dira ALERako: Xarles Videgain: «Papillon/mariposa» eta «Devinette/acertijo»; 30 galderako galdesorta jaso da EHHAk bildu dituenetik igortzeko (oraindik bukatu gabe); Jacques Allières, euskaltzain ohorezkoak idatzitako «Le basque et l'Atlas Linguarum Europae» lanaren egokitzapena egin du X. Videgainek ALEko buruek hala eskaturik.

Centre Nationale de la Recherche Scientifique/Euskaltzaindia

GDR9 taldearekin ekainean egin da bilera bat. Bertan CNRS-Euskaltzaindiaren arteko hitzarmena prestatu bidean arduradun Le Dû jauna izendatu dute. Jaun honekin eta CNRS-ko goikargu den A. Iribarnerekin izandako harremanetan X. Videgain bertan izan da EHHAren ordezkari.

ERANSKINA

EUSKAL HERRIKO HIZKUNTZ ATLASA DATU-SARRERA (93.12.31)

INKESTERRIA	PREST	ATALAK				
		1	2	3	4	5
101 Getxo		X	X	X	X	X
102 Leioa	X					
103 Zollo	X					
104 Sondika	X					
105 Laukiz	X					
106 Lemoiz	X					
107 Etxebarri	X					
108 Zaratamo		X	X	X	X	X
109 Orozko	X					
110 Mungia	X	X				
111 Zeberio	X					
112 Bakio	X					
113 Fika	X	X				
114 Larrabetzu	X	X				
115 Arrieta	X	X				
116 Lemoa	X	X				
117 Dima		X	X	X	X	X
118 Zeanuri	X					
119 Errigoiti	X	X				
120 Bermeo	X					
121 Busturia	X					
122 Euba	X	X				
123 Mañaria	X	X				
124 Otxandio	X	X				
125 Ibarri	X	X				
126 Mendata	X	X				
127 Kortezubi	X	X				
128 Elantxobe	X					
129 Berriz	X					
130 Arrazola	X					
131 Elorrio	X	X				
132 Bolibar	X	X				
133 Gizaburuaga	X	X				
134 Lekeitio	X	X				
135 M.-Etxebarri		X	X	X	X	X
136 Ondarroa	X	X				
201 Aramaio	X	X				
301 (Le.-)Gatzaga	X	X				
302 Arrasate	X	X				
303 Eibar	X	X				
304 Araotz	X	X				
305 Oñati	X	X				
306 Bergara		X	X	X	X	X
307 Elgoibar	X	X				
308 Mendaro	X	X				
309 Deba	X	X				
310 Azkoitia	X	X				
311 Urretxu	X	X				

INKESTERRIA	PREST	ATALAK				
		1	2	3	4	5
312 Legazpi						
313 Zegama	X	X				
314 Itsaso	X	X				
315 Zestoa (Arroa)	X	X				
316 Azpeitia		X	X	X	X	X
317 Getaria	X	X				
318 Beizama	X	X				
319 Beasain	X	X				
320 Ataun	X	X				
321 Errezil	X	X				
322 Aia		X	X	X	X	X
323 Orio	X	X				
324 Asteasu	X	X				
325 Ikaztegieta	X	X				
326 Amezketza	X	X				
327 Tolosa	X	X				
328 Donostia	X	X				
329 Lasarte	X	X				
330 Andoain		X	X	X	X	X
331 Elduain	X	X				
332 Oresa	X	X				
333 Hernani		X	X	X	X	X
334 Pasaia	X	X				
335 Oiartzun	X	X				
336 Hondarribia	X	X				
401 Urdiain	X	X				
402 Arbizu	X	X				
403 Dorrao	X	X				
404 Gaintza		X	X	X	X	X
405 Leitza	X	X				
406 Etxarri		X	X	X	X	X
407 Oderitz	X					
408 Goizueta	X	X				
409 Ezkurra	X	X				
410 Beruete		X	X	X	X	X
411 Igoa	X	X				
412 Etxaleku	X	X				
413 Xuarbe	X	X				
414 Sunbilla		X	X	X	X	X
415 Donamaria	X	X				
416 Etxalar	X	X				
417 Alkotz	X					
418 Anitz		X	X	X	X	X
419 Lekaroz		X	X	X	X	X
420 Zugarramurdi	X	X				
421 Eugi						
422 Errazu		X	X	X	X	X
423 Zilbiti						
424 Mezkiritz						
425 Luzaide	X					
426 Abaurregaina						
427 Eaurta	X	X				

INKESTERRIA	PREST	ATALAK				
		1	2	3	4	5
501 Hendaia	X	X				
502 Don.Lohizune	X					
503 Azkaine	X					
504 Sara	X					
505 Senpere	X					
506 Ahetze	X	X				
506 Arrangoitze	X	X				
508 Uztaritze	X	X				
509 Mugerre	X					
510 Itsasu	X	X				
511 Urketa	X					
512 Beskoitze	X					
513 Hazparne	X	X				
514 Makea	X	X				
515 Bardoze	X					
601 Aldude	X					
602 Bidarra	X	X				
603 Baigorri	X	X				
604 Arnegi	X					
605 Uh.Garazi	X					
606 Irisarri	X					
607 Isturitze	X					
608 Arruta-Sa.	X					
609 Armendaritze	X	X				
610 Ezterenzubi	X					
611 Gamarte	X	X				
612 Landibarre		X	X	X	X	X
613 Behorlegi	X	X				
614 Arboti	X					
615 Garruze		X	X	X	X	X
616 Jutsi	X					
617 Larzabale	X					
618 Bastida	X					
701 Phagola	X					
702 Domintxine	X					
703 Urdiñarbe	X					
704 Altzürükü	X					
705 Larrañe	X					
706 Altzai	X					
707 Sohüta	X	X				
708 Muntori	X	X				
709 Santa Grazi	X					
710 Ürrüxtoi	X					
711 Barkoxe	X					
712 Eskiula	X	X				

IV. Batzordea: Onomastika

ONOMASTIKA BATZORDEA

Onomastika lan esparruan oso argi igarri da euskararen egoera berriak sortutako eskaera. Batzorde honek ohizkoak izan dituen lanez gain, deitura eta ponte izenen idazkera eta leku izenena, iaz hasitako exonomastika lanari gogor ekin dio, sorrerako xedeak gaindituz, gizarte beharrak betetzeko asmoz.

Ekintza nabarienak jarraian aipatuak badira ere, badaude etengabe bulegoetan, bai telefonoz bai zuzenean egiten diren lanak, besteak beste, ponte-izen eta deitura ziurtagiriak udalek, auzitegiek edo norbanakoek eskatuta.

Honetaz gain, hileroko batzorde bilkuretan sailka aztertzen dira gaiak: leku-izenak, euskal deituren idazkerak, ponte-izenak eta exonomastikakoak.

Bilkuren maiztasunari dagokionez hilean behin egin ohi ditu batzorde honak.

Egindako lana bi eratakoa izan da. Batetik ohizko lana, hau da, deitura eta izen agiriak, eta bestetik herrietatik egindako eskaerak, kale eta auzoen izenak euskarazko formetara egokitzeko eta baita ere udal izenak, lan honek prozeduran behar duen txosten eta guzti. Udal izenak aldatzeko eskaerak ugaritu dira batetik Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan izena euskal idazkeran jarri gabe zeuden udal-herriei eskutitz bana bidali baitzitzaien egin zezaten eskatuz, eta bestetik Nafarroan arestian egin denez zenbait zehaztasun eta eskaera bereziri erantzun behar izan zaiolako.

Batzorde honen lan arruntari Exonomastika lantaldeak egindakoa gehitu behar zaio. Hasieran egun berezi batean biltzen hasi bazen ere, geroago eraginkortasuna handitzeko batzordearen bilkura arruntaren ondoren biltzea erabaki zen. Talde honek dagoeneko, munduko estatu izenak, izen historikoen zerrenda luze bat, Espainiako probintzia, autonomi elkarte eta Frantziako departamentuen eta herrialdeen izenak eta erabili beharreko transliterazio taulak —hizkuntz arrotzen izenak, idazkera latinoak ez dutenenak, euskal grafian emateko taulak— zehaztu dira. Hona hemen batzordeak landu dituen arloak:

Leku-izenak

Batzordearen sorreratik hain garrantzitsua izan den atal honetan hiru motako lanak egin dira:

- Kale-izendegigintza: Donostia, Eskoriatza, Gernika-Lumo eta Zizurkilgo udalentsat.

- Herri-izen irizpenak prestatu dira urtean zehar, herri hauentzat: Uhar-te (Na), Arteaga-Arratia (Bi) eta Ispaster (Bi). Honetaz gain *Euskal Herria eta probintzien izenei buruzko* erabaki proposamena egin du, izenez gain gentilizioak eta euskalkien izenak zehaztuz.
- Beste erakundeetatik etorritako eskaera solteak, bai Osakidetzatik — eskualde izenak eta Osasun Zentruen izenei buruzkoak—, bai eskola eta institutuen izen irizpenak, baita Basurtuko ospitaletik ere.

Azkenik euskal izenak berreskuratzeko ahaleginekin segituz okerreko izenei buruzko irizpideak ematen saiatu da, bereziki komunikabideetan ikusitako hutsak zuzendu nahian.



Ezkerretik eskuinera: Juan Cruz Alli, Jean Haritschelhar, Jose Antonio Ardanza, Eli Galdos, Alberto Ansola, Angel Mari Iturbe.

Deiturak

Urria arte bi bekadun aritu dira *Euskal Deituren Izendegia* prestaketa lanetan, Txema Fernandez de Anakabe eta Mikel Gorrotxategi. Beka hauen esleipena bukatu bada ere, M. Gorrotxategik lanari jarraitzen dio, ikerketa ahalik eta osatuena izan dadin. Behin behineko zerrenda eta irizpen proposamena batzordeari pasatu zitzaizkion, eta dagoeneko finkatzeko lanak ari dira burutzen.

Lan honen egitasmoa erdal grafiaz heldu zaizkigun euskal deiturak gure hizkuntzaren arauetara egokitzea da. Gauza bi azpimarratu behar da: batetik arauetara egokitzea ez dela euskara batuan idaztea, Bergarako bilkuran ongi erabaki zen bezala. Eta euskal deitura esaten denean ez dela grafiaz ari, hizkuntzaz baizik, batzorde honek argi eta garbi utzi baitzuen bere adierazpen batean,

batzordearen lana ez dela erdal deiturak itzultzea edo euskal idazkeran ematea, nahiz eta bertakoak izan.

Izendegia burutu bitartean, Euskaltzaindiaren lau bulegotara ziurtagiri eskaerak etengabe heltzen dira. Gehienak errezak izan arren eta besterik gabe ematen badira ere, arazodunak ere izan dira, batez ere afrikari/frikarien alorrean. Kasu horietan batzordera pasatu dira, honek erabakia har zezan. Holakoetan banan banako azterketa egin eta gero irizpena eman da.

Ponte izenak

Ponte edo izen ttipien alorrak arazo larriarik sortu ez arren, badago iritziak argitu beharra. Arazo larrienak hipokoristikoak, hau da lagun edo familia arteko izenak dira; kanpoko izenak euskaraz nola eman, eta izen berriak arautzea, baina honelako kasuetan batzordeari dagokio erabilera arautzea.

Exonomastika

Iaz hasitako exonomastika lanekin jarraitu da. Hasiera batean gaia bi azpibatxordetan bananduta bazegoen ere, exotoponimia eta exoantroponimia, biak batzea erabaki zen askoz ere emankorragoa baitzen, gai baten bi mutur baino ez zirelako.

Arlo honetan orain arte egindako lana, labur bilduz, honako hau da:

- Gehien erabiltzen diren kanpoko ponte-izenen zerrenda (izen historikoak barne). Gaur egun ponte izenen zerrenda handitzen ari da, lanak ahalik eta osotasun handiena izan dezan.
- Munduko nazio, hiriburu eta biztanleen izenak;
- Europako herrialde historikoak;
- Munduko herrialde eta etnien zerrenda;
- Munduko akzidente geografiko nagusiak;
- Espainiako herrialde eta probintzien, eta Frantziako herrialde eta departamenduen izenak;
- Transliterazio taulak.

V. Batzordea: Literatura

Batzorde honek bi azpibatzerde ditu:

- Herri-Literatura
- Literatura-Ikerketa



HERRI-LITERATURA AZPIBATZORDEA

Bi ardatz nagusi zituen Herri-Literatura azpibatzearen 1993ko egitasmoak: 1. Herri Literaturari buruzko III. jardunaldien prestaketa, eta 2. Euskaltzaindia sortu zeneko 75. urteurrenkari, Herri-literaturaren alorrean batasunaren bidean ekarria jasotzea, metrikaren batasunari buruzko gomendioak bideratuz. Gainera, Xenpelar saria errotzea ere bazuen azpibatze honen asmo eta xede.

Horiek horrela, honako hiru ekintza hauek aurrikusi zituen batipat azpibatzeak: 1. III. Jardunaldien prestaketa, 2. *Euskal metrikaren eskuliburu berria* parte hartzea eta 3. Xenpelar sari nagusia bideratzea. Horretarako, hamar egunetan bildu da 1993an zehar, hileroko laugarren asteartean. Hona hemen egindakoaren berri:

III. Jardunaldien prestaketa

Manuel Lekuona zenaren jaiotzaren mendeurrena dela-eta egingo dira 1994an Herri-Literaturaren III. Jardunaldiak, «Ahozkoitasuna» gai hartuta.

Jardunaldi horiek prestatzen zerbait zirriboratu du azpibatzeak 1993an, baina 1994rako geratu da lanik gehiena: gaiak zehaztea, Euskal Herriko eta kanpoko adituekin hizketan hastea, eta beste.

Euskal metrikaren eskuliburu berria

1. Helburuak

- Metrikaren atalburu orokorretan euskal neurkerak dituen berezitasunak zehaztea: kontzeptuak, legeak eta lizentziak.
- Guzti honen euskal izendegia-eta finkatzea, Euskaltzaindiak beste lanalorrean, hala nola gramatikan, erabiltzen dituen hitzak kontuan hartuz; eta, jakina, usariozko lexikona abiapuntutzat edukiz.
- Azken batean, tratatu labur bat eskaini, argia eta zehatza, gai honetan Euskaltzaindiaren erabakiak —arauak, gomendioak, onikusteak— aurkeztuko dituen. Funtsezko gaiak izango dira, alderdi sakonak ikasientzat utziz.

2. Alorrak

2.1. Bertso-lerroak:

- Silabak, azentuak, etenak, kadentziak

- Lizentziak: sinalefa, sineresia, dieresia, dialesia
- Hemistikioak
- Bertso-lerro luzeak eta laburrak

2.2. Puntuak:

- Euskal puntua zertan datzan
- Mota bat baino gehiago dago? Zenbat?
- Sailkapen logikoa, usarioa gogoan
- Hoskidetza eta grafemen arteko desberdintasuna
- Alderdi estilistikoa, metrizismoa gogoan
- Zer gomendatu geroari begira

2.3. Estrofak, bertsoak:

- Iparralde eta Hegoaldeko usuario desberdina bertso-idazkeran
- Sailkapena egiteko irizpideak
- Sail nagusiak eta molde bereziak euskal estrofismoan
- Izendegia
- Gomendioak geroari begira

Alor hauek hiru azpi-ponentzian lantzea erabaki da: bertso-lerroena, puntuena, estrofena. Hiru azpi-ponentzia hauekin ponentzia nagusi bakarra osatuko da batzar nagusirako, aukeratutako batek aurkeztuko duena.

Landutako txostenak

Herri-Literatura azpibatzerdeak, batipat, Uztapide eta Orixeren errimae-rak izan ditu aztergai, Pello Esnalen «Uztapide eta Orixeren errima» izeneko txostena oinarri hartuta. Txosten hori landu eta eztabaidatu ondoren, urratua geratu da bigarren azpi-ponentzia moldatzeko bidea.

Izan ere, talde-lan horren harian bideratu du azpibatzerdeak:

- Euskal errimaren azterketa.
- Euskal errimaren bereizgarrien atzematea (zer duen amankomunean, alboko hizkuntzetako errimarekin eta zer duen bere-berea).
- Euskal errimaren zer-nolakoaz jabetzeko lan-metodo bat eratzea.
- Uztapideren eta Orixeren errimaeren arteko antzak eta aldeak finkatzea, bide batez bertsolarien eta poeten errimaeren arteko antzez eta aldeez ere jabetzearren.
- Euskal literaturan errimaeran dauden usuario eta joera nagusiak zirriborratzea.

Xenpelar Sari Nagusia

Bertsopaperen Xenpelar saria dela eta, luze eztabaidatu da azpibatzerde honetan. Urteoro egingo den lehiaketa hau bertsojartzaileentzat izango da, sarien sari gisa. Sariaketa honek bertsojartzaile batek bere bizitzan bertsoak idazten egindako merezimenduen aitortzea izan nahi du. 1993rako saria ez ematea erabaki da orobat.

Beste zenbait ekintza

Herri-literatuta azpibatzen dekideek, urtero bezala, hainbat kanpo-ekintzatan hartu dute parte 1993an ere:

1. Jardunaldi eta hitzaldi

- Euskal herriko Bertsolari Elkarteak antolatutako Forumaren partaide izaki, Bertsolamintza Jardunaldietan hizlari izan da Pello Esnal, «Bateko bertsogintzaren didaktikaz» txostenarekin.
- Errenteriako udalak Xalbador Zapirain «Ataño» idazleari egindako omenaldian, «Xalbador Zapirain «Ataño»ren bizitza eta lanak» hitzaldia eman du Antonio Zavalak.

2. Argitalpenak

Guztira, hamar argitalpen plazaratu dituzte azpibatzen dekideek honetako kideek herri-literaturaren inguruan: sei liburu eta lau artikulu.

3. Epaimahaietan

Urtero bezala, parte hartu dute azpibatzen dekideek zenbait bertsolari-txapelketa eta bertsopaper-lehiaketatako epaimahaietan: Lizardi, Lekuona, Basarri, Orixe eta Zapirain anaiak bertsopaperen sarietan.

4. Aitorpena

Era berean, aipagarria da Bertsolari Elkarteak 1993ko bertsolari-egunean azpibatzen dekideek honetako Alfonso Irigoieni eskainitako omenaldia.

Literatura-Ikerketa

LITERATURA IKERKETA

Bi eginkizun nagusiren inguruan bildu da 1993an Literatura Ikerketa azpibatzenaren jarduna: batetik, Literatura Hiztegiaren idazketa prozesuari ekin zaio; eta, bestetik, Euskaltzaindiaren 75. urtemuga dela eta, Literatura sailak aurkeztu behar duen txostenean taie noni dagokiona lanitzen ari da. Berdeatzi bilera egin ditu azpibatzenarek.

Literatura Hiztegia

— Hiztegi hitzen zerrenda finkatu da lehenik, urtarrileko bilkuran, artikulukopurua honela sailkatuz:

3. mailakoak, luzeenak 43 artikulua.
2. mailakoak, ertainak, 91 artikulua.
1. mailakoak, laburrak, 469 artikulua.
0. mailakoak, beste izen batera igortzen duten hitzak, 103 sarrera.

3. mailako artikuluekin hasiera erabaki da, hauek artikuluen ardatz nagusi eta kokagune izan behar dutenez.

Gaien banaketa honela egokitu da, lehen aldirako:

- Jean Haritschelhar, Juan M. Lekuona: Ahozko literatura, apain-olerkia, herri-literatura, kantu-kanta-khantore.
- Koldo Otegi, Aurelia Arkotxa, Ana Toledo: Erritmoa (narratiban), narratiba, estilistika, semiotika, funtzioa, pizkundea, poetika, testua, eleberria, herri-lirika (1), historia, literatur kritika, literatur teoria, denbora.
- Gorra Aulestia: Bertsolaritza, klasizismoa, poesia.
- Jon Kortazar: Abangoardia, barrokoa, erromantizismoa, modernismoa, herri-lirika (2).
- Patri Urkizu, Txomin Peillen: Antzertia, drama, komedia, estiloa, generoa, pastoralak.
- Xabier Altzibar: epika, erretorika, kazetaritza, prosa.
- Luis M. Mujika: estetika, lirika.
- J. Kruz Igerabide: ipuina.

Badira beste zenbait gai, beren konplexutasunagatik tratamendu berezia izango dutenak, batez ere alor batzuetako jakitun eta ikasiekin kontsulta egitea eskatuko dutenak.

Guztira 19 artikulua idatzi, irakurri eta eztabaidatu dira. Biderdi gaudela

esan behar. Baina 3. mailako artikuluok idatzitakoan, esan liteke zatirik garrantzitsuena eginik dagoela. Handik aurrera asko bizkortu beharko da lan erritmoa. Baina eginik geratuko da proiektuaren funtsa eta hezurdura.

75. Urtemugako Biltzarra

Gertakari ospetsu hau dela eta, Literatura batzordeak agertu du Biltzarreko Jardunaldietan parte hartzeko asmoa. Hasieratik ikusi zen euskal metrika izan zitekeela Literatura sailekoek aurkez dezaketena lana.

Gaiaren banaketari dagokionez hiru azpi-ponentzietatik bat, Literatura Ikerketa talde honetan lantzen hasia, *modulu metrikoak* deritzana.

VI. Batzorde suntsikorrak

Euskara Batuko batzordea

EUSKARA BATUKO BATZORDEA

Batzorde hau zazpi aldiz bildu da 1993an zehar eta emaitza nagusia euskara batuari buruzko gomendio-proposamenak izan dira.

Gomendio- eta erabaki-proposamenak

Batzorde honek euskara baturako zenbait gomendio- eta erabaki-proposamen aztertzeari ekin dio. Lehenik batzordeak berak prestatu ditu kasuan kasuko txostenak, proposatzeko zeuden argumentuen berri emanez.

Euskaltzaindiak gomendioak eman aurretik edo erabakiak hartu baino lehen, euskaltzain osoez gain, zenbait laguni iritzia eskatu dio. Iritzi-emaile hauei, aldi desberdinetan, gai hauei buruzko txostena bidali zaie, beren oharrak egin ditzaten, hala baderitzaie, beti ere ezarritako epe jakinen barruan.

Batzordeak, ohargileen eta iritzi-emaileen oharrak aztertu ditu, eta horiek guztiak kontuan izanik kasuan kasuko proposamena egin dio Euskaltzaindiari, hileroko bilkuran erabakia har dezan, hala balegokio. Hona hemen, 1993an zehar, eman diren pausoak:

- *Nor nahi/nor-nahi/nornahi* formei buruzko galdeketa egin da urtarrilean.
Euskaltzaindiak, 1993ko urtarrilaren 26an, galdetzaile batez eta *nahi* partikulaz osaturiko esapideak hitz bakar batean idatz daitezela gomendatu du: *zernahi, nornahi, nolanahi, nornahai*, e.a.
- *Nor/nortzuk, zer/zertzuk, zein/zeintzuk* formei buruzko galdeketa egin da urtarrilean.
Euskaltzaindiak, 1993ko apirilaren 30ean, zera erabaki du: batetik, *nor, zer* eta *zein* formei lehentasuna ematea eta, bestetik, erabili nahi dituenarentzat, atzizki pluralgiledun formen paradigmak zehaztea: *nortzuk, zertzuk, zeintzuk* (abs), *nortzuek, zeintzuek, zertzuek* (erg), *nortzuei, zertzuei, zeintzuei* (dat), e.a.
- *zio; -zione; -zino* formei buruzko galdeketa egin zaie iritzi-emaileei azaroan.
Euskaltzaindiak, 1993ko azaroaren 27an, euskara baturako *-zio* aldaera hobestea erabaki du.
- *Bostgarren, bosgarren, boskarren* ordinalen eta *bostna, bosna* banatzaileen idazkeraz iritzia eskatu zaie azaroan iritzi-emaileei.

Euskaltzaindiak, azaroaren 27an, idazkera hau gomendatu zuen ordinalentzako: *bigarren, hirugarren..., bosgarren, hogeita batgarren..., ehungarren, milagarren..* Eta galderetarako *zenbatgarren*. Banatzaileei dagokienez, idazkera hau gomendatzen du Euskaltzaindiak: *bana, hogeita bana, bosna (borzna), hamabosna (hamaborzna), ehuna, mila bana...* Eta galderetarako, *zenbana*.

— **Hikako alokutiboen sistemari** buruzko txostena bidali zaie abenduan iritzi-emaileei, erantzunak 1994ko urtarrilaren 20rako bidaltzea eskatuz. Beraz, 1994. urtean zehar garatuko dira erabakiak.

Bestelako txostenak

Batzordeak, goian aipaturiko gaiez landa, «aditzoinen formen finkatzeko irizpidez» izeneko txostena prestatu eta aztertu du. Hau da, nola aztertu behar den: *oroitu/oroit/oro; lagundu/lagunt/lagun*, etab.

1994an egingo den XIII. Biltzarraren prestaketa

Datorren urteko udazkenean Euskaltzaindiak egingo duen biltzarrean, besteren artean, euskara batuari eskainiko zaio erabateko garrantzia. Hain zuzen ere, Euskara Batuko kide guztiak 75. Urteurreneko batzordekide dira.

Ahoskera batzordea

AHOSKERA BATZORDEA

Batzorde honek, 1993ko urrian sortu zenetik urtea amaitu arte hiru bilkura egin ditu. Eurotan batzordearen lan esparrua finkatu izan da bereziki, berau ondoko puntuotan labur biltzen delarik:

1. Batzordearen premiazko egitekotzat euskara idatzia nola ahoskatu behar den adieraztea jo da.
2. Aurreko lan eremu nagusia kontuan izanik, txosten batzuk banatu dira eta baita eztabaidatu ere:
 - Lourdes Oñederra: «Gure egitekoaren inguruko zenbait gogoeta».
 - Juan Manuel Etxebarria: «Kontsonante multzoen ahoskera».
 - Joxe Ramon Zubimendi eta Pello Esnal: «Ahoskera».
 - Jose Luis Alvarez Enparantza: «Ahoskera baturantz».
 - Pilartxo Etxeberria: «Hizketa-hotsak, fonemak eta grafemak».
 - Rosa Miren Pagola: «Euskal Ahoskera».
3. Datorren urteko maiatzean egingo diren jardunaldietan, «Euskal ahoskerari buruzko zenbait gomendio» izenburupean aurkeztuko dira txostenak.
4. Batzordekide guztien iritziz, alor honetan har daitezkeen erabakiak edo gomendioak gutxi eta argiak izan beharko lirateke.

Hauek izan dira aztergaiak:

- Bokal isolatuak
- Bokal bilkurak, diptongoak
- Kontsonante isolatuak



VII. Jagon Saila



JAGON SAILA

Sorreratik bertatik Euskaltzaindiak dituen helburuen artean badira, besteetan beste, batzuen artean honako hauek: euskararen erabilera aitzinatzea eta hizkuntzaren eskubideak zaintzea. Lan honetan zeregin berezia izan du betidanik Jagon sailak Euskaltzaindiaren barnean, bertan izan baitira kokatuak euskarari dagozkion helburu nagusi hauek.

1993. urtean ere lan aspergabe honetan jarraitu du Jagon sailak, beti legez, azken urteotako joerak berretsiz. Honela, euskararen jagotea bi esparru nagusiotan gauzatu ditu Jagon sailak:

- Euskararen erabilera zuzena
- Ardura eta harreman bereziak, euskararen status delakoaren aldetik.

Euskararen erabilera zuzena

Urteotako lana duen honetan, Jagon sailak areagotu egin ditu bere kezak eta ahaleginak eta horrexegatik Jagon sailak, 1994. urteari begira, Euskaltzaindiaren 75 urte direla eta, egitarau berezia prestatu eta hezurmamitu du, euskararen erabilera zuzenaren inguruan Jardunaldiak antolatuz. Jardunaldi hauen antolatze lanean jardun du Jagon sailak, 1993. urtean, uste baitu helburu horrek berebiziko ahalegina eskatzen duela azken urteotako euskalgintzaren ildoa zertxobait aldatu nahi bada, kantitatea baino kalitatea zainduz.

Honetara, urtean zehar egindako bilerek Jardunaldi hauen antolatzeari eman diote lehentasuna bide batez legegintza konparatua ikertuz. Hiru alor nagusitan zehaztu dira euskararen erabilera zuzena zertan datzan eta zein izan daitezkeen etorkizuneko abiapuntuak. Jardunaldiak otsailerako programatu dira, euren egitaraua ere zirriborratuz. Bestalde, Jagon sailaren barnean batzordeño aproposa sortua izan da, antolatze lana modu jarraitu eta zehatzago batean jorratzeko.

Jardunaldi hauei dagokienez, arestian aipaturiko hiru alor bereiztu dira eta baita ere, hiru alor horietan jardungo duten hizlariak. Jagon sailkide diren Mikel Zalbide, Jose Luis Lizundia, Andres Iñigo, Xabier Kintana eta Andres Urrutia bitartekoak izanik ere, hortxe izango dira, baita ere honako hauek: M. Karmen Garmendia, Jose M. Rodriguez Ochoa, Patxi Uribarren eta Marian Lizarralde «Euskara eta administrazioa» alorrean; Ibon Olaziregi, Jose M. Berasategi eta Patxi Iñigo «Euskara eta irakaskuntza» eta, Patxi Petirena, Igone Etxebarria, Antton Aranburu eta Luzien Etxezaharreta «Euskara eta komunikabideak» alorrean.

Era berean, Jardunaldi hauen lehen egunean, Domingo García Sabell, Manuel Regueiro, Miquel Reniu, Aina Moll eta Jesus Hugueta izango dira hizlariak, erabilera zuzenaren kontuak azalduz euren errealitatetik, hots, Galizia, Katalunia, Valentzia eta Balearretako Autonomi Erkidegoetatik, bertako esperientziak gurera ekarri. Aipamen berezia Glynn Williams irakalearentzat, lan berean ibiliko baita Walesko ikuspuntutik.

Ardura eta harreman bereziak euskararen status delakoaren aldetik

Jagon sailak etengabe jarraitu du bere jagote lanean 1993. urtean. Urte honetako ekintzarik azpimarragarrienak honako hauek dira:

— Pentsan ohizko bihurtu diren euskararen kontrako zenbait artikulua laido eta iraingarrien aurrean, komunikabide horietako zuzendariei gutunak bidali, euskarari eta euskaldunei zor zaien begirunea bete dadin.

— Kudeaketa zuzenak egin dira, Espainiako Justizia Ministeritza eta honen erakundeen aurrean, euskal deituren grafiak euskaraz jartzeko prozeduran, benetako batasuna era irizpide sendoak bultzatzeko.

— Euskal kantutegiaren argitalpena ere eztabaidatu egin da.

— Seaska, Iparraldeko ikastolen elkarteak, urtero argitaratzen duen egutegiaren euskal izenen ardura hartu izan da, argitalpen honen oker batzuk zuzenduak izan daitezela eskatuz bere egileari.

— Era berean, Iparraldeko bide-seinaleetan euskara zernolakoa den eztabaidatu da eta E. Leclerc saltokietako arduradunei zorionak eman izan zaizkie, hango errotulazioak bi eletan, euskaraz eta frantsesez, eman izan dutelako.

Dokumentazioa eta ordezkariak

Jaso izan dira jagote lanarekin zerikusia duten argitalpen espezializatuak, beraiekin oinarritzko bibliografia eta dokumentazio multzoa osatuz. Ordezkaritzen bitartez egin da ekintza hauen gauzatzea, bakoitza bere herrialdean.

Ondoren adierazten diren elkarteek bidali dute liburu edo aldizkariren bat:

- Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia
- IVAP
- HABE
- EKB
- UZEI
- AEK
- Euskara Gasteiz
- Emakunde
- Le Bureau européen pour les langues moins répandues
- Centre International Escarré per les Minories Étniques i les Nacions.

Harremanak

Urtero legez, harremanei dagokiela, loturak izan dira Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia, Nafarroako Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia, Helduen Alfabetatzeko eta Euskalduntzeko Erakunbdea, Herri Ardularitzarako Euskal Erakundea, Foru Diputazioak, Euskal Kulturaren Biltzarra, Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteak, Eusko Ikaskuntza, Euskal Herriko Unibertsitatea, Nafarroako Unibertsitatea eta beste zenbait elkarte, hala nola, AEK, IKA, IKAS, Bertsolarien Elkarteak, Landazuri Elkarteak eta toki eremuak, zeini behar izan duten laguntza eman zaien.

VIII. Akademi zerbitzuak

Egoitza eta ordezkariak

ZERBITZU OROKORRAK

Atal honetan Euskaltzaindiak bai Iker eta Jagon sailtako batzordeen azpiegitura bezala egiten dituen lanen berri ematen da, eta baita euskararen lege eta gizarteekiko normalkuntza bidean aurrera joan dadin, erakunde eta gizabakoei asesoratze eta laguntza oro eskainiaz. Akademiaren zeregin hau bere Arautegian agertzen da eta Bilboko egoitza nagusiaz gain, Donostia, Gasteiz, Iruñea eta Baionako ordezkariak bidez gauzatzen da.

Euskaltzaindiaren ekintza hauek asko ugaritu dira, bertako eta kanpoko ikerlariek euskararekiko daukaten gero eta arreta handiagoa erakusten duelarik. Horrez gain, euskal gizartean gure hizkuntzaren erabilera oparoagoa dagoela adierazten du gertakizun honek.

Herri Aginte eta unibertsitateetatik aholku eta laguntza eskeen kopurua izugarri gehitu zaio Euskaltzaindiari. Ponte eta leku-izenen irizpen eta ziurtagiriak, deituren euskal ortografiara egokitzekoak, testuen hizkuntz-zuzenketak, bibliografia galderak, gramatikazko zalantzak, eta abarrek Akademiaren zerbitzu orokorrak guztiz gaindituak uzten dituzte askotan. Euskaltzaindiaren egoitzan, 1993. urtean, 843 ziurtagiri egin ziren; ordezkarietan egindakoen berri ondoko orrietan ematen da.

Euskaltzaindiaren azken gomendio akademikoen berri jakitera geroago eta jende gehiago zuzentzen da egoitza eta ordezkarietara, alegia, ikasle, irakasle, itzultzaile, idazle, kazetari, Administrazioako funtzionario, eta abar. Orobat, bere jardunaldi eta egiten dituen ekintzez, bereziki, erakundearen 75. urteurrena dela eta, antolatu dituen arreta agertuz.

Akademiaren argitalpen zerbitzuaren garrantzia areagotu da azken urte hauetan, baina honen berri zehatzagoa atal honetan geroago emango da. Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekak eskeintzen dituen zerbitzuen albiste oparoagoa ere sail honetan azalduko da.

DONOSTIAKO ORDEZKARITZA

Egoitza honetan ohizko eginkizunak dira helburu nagusi. Behar bada, Euskaltzaindiak Gipuzkoan zenbait batzorde kokatzeko izan duen egokiera ikusita, bereziki ordezkariak honek zerbitzu nagusia eskaini ohi du batzordeen eta lantaldeen azpi-egitura ematean.

Zerbitzu orokorrak

Gero eta gehiago eskatzen dira izen-deiturei buruzko agiriak, batez ere deiturei dagozkienak, hala nola idazkerak nola behar duen izan Euskaltzaindiaren proposamenen arabera.

Akademiari buruzko informazio eske beti badator jende bat, ospakizunen egutegia dela eta, edo jardunaldiak direla eta. Horrelako egutegia loturik baitator Euskaltzaindiaren ikerlanekin eta ikaslanekin.

Bestalde, euskara batuaren inguruan ere zerbitzu nahiko garrantzitsua luzatzen zaie herritarrei. Asko dira hurbiltzen direnak ikastoletatik, institutuetatik, euskaltegietatik, itzultzaileen mundutik, azken gomendioak, erabakiak eta proposamenak zein diren galdezka.

Aipatu behar da, baita ere, Euskaltzaindiaren argitalpen-zerbitzua. Salgai daude egoitzan erakundearen lanik erabilienak, ekartzen dira etxeko liburu berezienak eta bideratzen dira Euskaltzaindiaren bibliografiari buruzko galderak.

Batzordeen kokalekua

Batzorde asko dira Donostiako ordezkarietan biltzen direnak: EHHA-k bi langile ditu, beren lana hemen egiten dutenak; Zuzendaritza ere gutxienez hilean behin biltzen da egoitza honetan; gero, beren aldi-aldi bilerak hemen egiten dituzte Lexiko Erizpideen Finkapena (LEF) taldeak, Euskara Batuko batzordeak, Hiztegi Batukoak, Literatura Ikerketak eta Gramatika batzordekoak.

Hemen biltzen direla esateak, adierazten du egoitza honek izan behar duela batzorde horien nolarebaiteko azpiegitura: batzar-deiak egiteko, aktak idatzi eta banatzeko, behar den materialearen kopiak ateratzeko eta banatzeko, beste zerbitzuak osabetezko: lekuak, otordua eta abar.

Batzordeen lana dela eta, oso harreman estuak ditu Ordezkaritzak Diputazioarekin, osoen bilera han egiten delako, eta egoitza bera ere Foru Aldundia-

rena delako; orobat, UZEI-rekin Euskaltzaindiak Hiztegi Batuan daukan zeregi-na eta elkarlana bideratzeko; eta oro har, euskararekin zuzeneko zerikusia duten hainbat erakunderekin, hala nola, Euskal Idazleen Elkartearekin, EIZIE-rekin, Bertsolarien Elkartearekin, udaletxeekin eta beste hainbat erakunderekin.

Azpimarratzekoa da, baita ere, Euskaltzaindiak argitaratu dituen liburuen inprimaketarako egoitza honek eskaini duen zerbitzu jakina:

a.- *Hiz elkartuen osaera eta idazkera*. Batzordeak ekarritako txostena, argitaratzeko prestatu zen disketean sartuz.

b.- *Euskal Gramatika laburra: Perpaus bakuna*. Inprimategira eramateko prestatu zen eta gaien aurkibideak bideratu, zuzenketak egin, ordenagailuan bo-ta.

c.- *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak IV. Juntagailuak*. Txosten guztiak bildu, ordenagailuan txukundu, inprimatu eta euskaltzain osoei igorri.

Batzorde jakinen azpiegitura izatean datza Egoitza honetako helburu be-rezia. Garai batean hizkuntzaren «status»-a bultzatzeko zenbait lan hemendik bideratu ziren bezala, orain hizkuntzari buruzko ikerketei laguntza bat ematen zaie hemendik.

Barne-lanak

Gutuneria: Ohizko neurritara mugatu da aurtengoa, urteroko kopurua dabilela-rik batez beste. Zehazki esanik, 1993. urtean 106 sarrera izan dira eta 919 irteera. Oraingoz faxak erregistratu gabe daude.

Ziurtagiriak: Ugaritu egin dira eskabideak alderdi honetan, epaitegien eraginez. Gehienak deituri buruzko egiaztagiriak izan ohi dira, hemendik zerbitzatuak 324 izan direlarik. Izenei buruzko agiriak gutxiago eskaini dira, nahiz eta puntu honetan informazio asko ematen den, kontsulten bidez.

Artxiboa: Batzordeei buruzko artxiboa da batez ere hemen eramaten dena: txos-tenak, behin eta berriz berrituak, aldaera guztiak jasotzen direlarik; eta berdin gutunak, agiriak, batzar-deiak, diru-gorabeheren txartelak.

Hortik kanpo, biltzen dira eta jasotzen, gutuneria, beste ordezkarietzeko informazioa, eta erakundetik datozen lan-osagarriak.

Kontabilitatea Fitxetan eramaten da diru-mugimendua, hilero Egoitzara bidal-tzen delarik kontu-errendapena.

Lan bereziak

Euskaltzaindiak garrantzizko bere ekintzen berri eman beharrea aurkitzen denean, egoitza honetaz baliatu izan da inoiz bere prentsaurrekoak antolatzeko.

Horretaz gainera, egoitza honetan egin dira zenbait libururen aurkezpenak, bai Euskaltzaindiarenak, bai euskaltzainenak; eta burutu ere bai beste euskal munduko erakundekin eginiko bilera batzuk.

ARABAKO ORDEZKARITZA

Arabako ordezkartzan, 1993ko urtean egin den lanen errendapena egite-rakoan, Euskaltzaindia, bere zerbitzu orokorren bidez gizarteari eskeini behar dizkion laguntzak eta argibideak ematen eta Jagon sailak eskatzen dituen eginkizunak betetzen saiatu da.

Erakunde eta jendearekiko harremanak

Kontuan izanik Euskal Autonomi Elkarteko erakundeak Gasteizen dau-dela, zuzeneko harremanak daude Eusko Jaurlaritzako sail eta zerbitzu zenbaite-kin, hala nola, Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiarekin, Hezkuntza (Euskara Zerbitzua, IRALE...) eta Kultura sailekin, IVAP/HAEE, etab.

Era berean, probintzia honetan kokaturik dauden hainbat kultur elkarte-ekin ere izan dira harremanak eta eskatutako laguntzei erantzuten saiatu da Euskaltzaindia bere ordezkartzaren bidez: Ikastolen Federazioa, euskaltegiak (HABE, AEK, IKA, Hegoalde, Udaberria...), Geu Gasteiz elkarte, Landazuri, Arabako Bertsolarien Elkarte, Hegoa, e.a.

Gobernu Zentralaren Ordezkaritzarekin ere elkarlanean aritu izan da Euskaltzaindia azken urte hauetan euskararekiko gaietan.

Erregistro Zibilak, izen-deituren argibideen eske, eta Lurralde honetako udalak (Gasteiz, Oion, Aramaio, Agurain, Eltziego, Artziniega, Legutiano), errotulazio, toponimia eta euskararen erabilpen zuzenerako galderekin zuzendu dira.

Bestalde, Arabako ordezkartzako aretoa euskara edo kulturarekiko gaiei buruzko hitzaldiak emateko ere erabili da.

Barne lanak

Arabako ordezkartzatik lurralde mailako eskakizunei eta Euskaltzain-diak izan dituen zenbait beharri erantzun zaie.

Ziurtagiriak: Idazkaritza eta Onomastika batzordearen irizpideei jarraituz 98 izen-deituraren ziurtagiriak luzatu dira. Zalantzazko kasuak aipatutako batzor-dera eraman dira dagozkien argigarriak eta erabakiak har daitezten.

Artxiboa: Bulego honetako artxibo orokorraz gain, Euskaltzaindiaren bilera-agi-

riak (osokoenak, Zuzendaritza, ordezkariak, Jagon saila eta Onomastika batzordeetakoak), hizkuntzalaritza, euskal kultura, onomastika eta Jagon sailarekin zerikusirik duten gaiak ere kontutan hartu dira. Horrela, onomastikari buruzko liburu, txosten eta aldizkarien jasoketa egin da eta Jagon sailari dagokionez, besteak beste, boletinak, hizkuntza-legeria, soziolinguistika, hizkuntza minorizatuen egoerakoak.

Adierazpenak: Euskararen egoera Araban, beronen erabilpena, kontzientziazio kanpainak, errotulazio elebidunak eta orokorrean Euskaltzaindiaren Jagon sailaren eginkizunen barruan sartzen diren gaiak izan dira instituzio, elkarte eta komunikabideetara aditzera eman direnak, adibidez, *Izki* eskualde-izena dela eta egin den adierazpena barraiatu da; «Araba euskaraz» kanpainarako Arabako ordezkariak egin duen adierazpena; «Erdaratiko deituren gainean» zabaldu dena, eta beste.

Prensa dossierrak: Beste ordezkarietatik, batez ere Nafarroatik, eta EKB elkartetik jasotako materialaz baliatuz, hileroko prentsa dossierrak egin dira. Besteak beste, Argia, Avui, Deia, Diario de Navarra, Diario Vasco, Egin, Egunkaria, Ekaitza, El Correo, El Mundo, El País, Herria, Navarra Hoy, Sud-Ouest egunkari/aldizkariak arakatu dira. Dossierra Jagon sailkideen artean banatu da arrunki, eta prentsa mozkinak dagokien batzordeetan.

Lan bereziak

Onomastika batzordea

Batzorde honen buru eta idazkariaren zuzendaritzapean, eta Argitalpen eragilearekin elkarlanean, honako lanak egin dira Arabako ordezkartzan:

- *Onomasticon Vasconiae 7. Lizarrako jardunaldiak*, prestaketa lanak.
- Gerardo Lopez de Guereñuren *Voces Alavesas* liburuaren birargitalpenaren prestaketa.
- *Onomasticon Vasconiae 10. Andoaingo Toponimia*. Gainbegiratzea eta egile/inprimategi/maketatzaileekiko koordinazioa.

Gainera, azken hiru urte hauetan, etxe osoaren mantenuaren ardura Euskaltzaindiaren gain dago eta horren ondorioz, ugari izan dira alde batetik, Arabako Foru Aldundiaren Patrimonio eta Arkitektura saileko arduradunekin izandako harremanak eta bilerak, eta bestetik, etxe berean kokaturik dauden erakunde/elkarteekin (Arkeologi Institutua, Eusko Ikaskuntza, Euskalerriaren Adiskideen Elkarte, Euskal Herriko Unibertsitatea).

NAFARROAKO ORDEZKARITZA

Urteko ekintza berezia agintari eta euskal elkarteekiko harremanak ugaltzea izan da Jagon saileko bultzada sendotuz.

Erakunde eta jendearekiko harremanak

Martxoaren 26an Nafarroako Gobernuaren jauregian egin zuen Euskaltzaindiak hileroko bere batzarrea, eta ospakizun bereziz P. Yrizarren *Morfología del verbo auxiliar alto navarro septentrional (I, II)*, *Morfología del verbo auxiliar alto navarro meridional* eta *Morfología del verbo auxiliar roncalés* liburuki bien aurkezpena egin zen.

Fernando Sebastián, Iruñea eta Tuterako, artzapezpiku berriak errezibitu zuen Zuzendaritza eta lurraldeko ordezkaria.

Jose M. Rodríguez Ochoa, Hizkuntza Politikarako Zuzendari Nagusiarekin zenbait elkarrizketa izan dituzte Euskaltzaindiko arduradun desberdinek. Ordezkariek, bestalde, hartueman estuak ditu urtean zehar jaun honekin.

Iruñeko udalean bulego desberdinetako arduradunekin izan ohi dira loturak.

Bestalde, Euskaltzaindiak eman ohi dituen gomendioen zehaztasunetaz galderak egin ohi dituzte itzultzaile, ikastola eta udaletako euskal zerbitzuetako arduradunek.

Barne-lanak

143 ziurtagiri egin dira, bereziki pertsona izen eta abizenei buruz. Udaletatik ere jaso izan dira zenbait galdera, dudamudakoak dagozkien akademi-batzordeetan erabaki izan direlarik.

Oroit-idazkiaren 60 ale banatu dira agintari, komunikabide, euskal elkarte eta udaletxe zenbaiten helbidetara ordezkariaren agurrarekin.

Era berean, Nafarroako Bake Epaitegi guztietara igorri da Euskaltzaindiak erdaratiko deituren idazkeraz egindako adierazpena.

Mozkinak

Euskarari buruz Nafarroako egunkari eta aldizkarietan agertzen diren berrien bilketa egiten da, eta astean behin edo bitan igortzen dira mozkinak Zuzendaritzara, ordezkaritzetara, eta, batzordeei dagokienetan, batzorde arduradunei. Era berean, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusira ere.

Nafarroako ordezkaritzako bulego gastuen kopurua Iruñeko udalaren dirulaguntzaren bidez ordaintzen da. Horretarako milioi erdi pezeta ematen du, alogera Nafarroako Gobernuak ordaintzen duelarik.

BAIONAKO ORDEZKARITZA

Zerbitzu orokorrak

- Ziurtagiriei dagokienez bat baizik ez da egin, jende izenez.
- Akademiari buruzko kontsultak: artikulu bat egin dugu Baionako udalak zabaltzen duen kazetarentzat, aipamen berezia eginez Miren Azkarate euskaltzain berriaz.
- Hiru ikasle atzerritarrekin (bi holandar eta italiar batekin) harremanak izan dira azalpen zenbaiten emateko, Euskaltzaindiaz, eta orokorki euskararen egoeraz.

Erakunde eta jendearekiko harremanak

- Herriko etxeakoak: Bide seinaleen euskaratzeko laguntza eman zaie herri hauei: Ziburu, Uztaritze eta Donapaleu. Lan hori urtez urte emendatuz doa.
- Frantses Estatuarekikoak: 1992ko irailean *demande de reconnaissance d'utilité publique eskaera* egin zitzaion Barne Ministeritzari. Estatu Kontseiluak du azken erabakia hartzen. Bizkitartean, erabakirik hartu gabe, gobernuak aldatu da 1993ko martxoan. Ondorioz, galdea berriz egin behar izan da joan den urrian. Departamendu honetako hiru ministroek txostenaren kopia ukan dute.
- Uztailaren 30ean gertakari handia izan da Euskaltzaindiarentzat, lehen aldikotz François Bayrou departamenduburuak eta Hezkuntza Nazionaleko ministroak Akademiari biltzarre berezia eskaini baitio Nafarroako parlamentuan Oroit-idazki honek beste atal batean aipatzen duen bezala. Geroztik, Euskaltzaindiak departamendutik ukaiten duen diru laguntza bertze mailakoa da, 2.000 liberatatik 100.000 liberatarara heltzen baita.
- Piarres Charriton ordezkariak Seaska elkarteari lagundu dio urte guziz jalgitzen duen egutegiaren zuzentzeko eta hobetzeko.
- *Euskal Herrian Euskaraz* taldeak Iparraldean bultzatu duen «Euskalduneri euskaraz» hitzarmenaren babesleatarik da Euskaltzaindia: izenpetzaileek ukan ditzaketen hizkuntza aldeko edozein duda argitzeko, dagokion aholkularitza emateko prest da.

Itzulpenak

Baionako ordezkariak egiten dituenak bi motakoak dira:

- Hitz bakar bat edo erran molde bat, demagun herritar edo lantegi barentzat.
- Lan handiagoak: Baionako Leclerc saltokien barne seinaleen euskartzeko, baita ere AFOG, laborarien batasunak egin publizitate euskartua zuzentzeko.

Besterik

EGA diplomarako azterketa bi aldiz urtean (ekainean eta urrian) antolatu du Baionako ordezkariak Iparraldeko bizilagunentzat. Guztiz, 65 lagun aurkeztu dira aurten.

Aipamen berezia bi libururen aurkezpenaz

- Sarako azokan (urte guziz, Pazko biharamunean) Bordeleko unibertsitateko URA ikerketa batzordeak eta euskaltzainburuak Elizanburu jardunaldiaren aktak aurkeztu dituzte. Liburu horrek arrakasta handia bildu du, bereziki euskal erakasle eta fakultateko ikasleen artean.
- Iker 7: lehen aldia zen Baionako Unibertsitate-ikastetxean aurkezten zela euskal gaiez egindako liburu bat. Fakultateburuak Euskaltzaindiari ongi etorria egin dio eta lehen urrats horri segida emateko xedea agertu du. Bestalde, prentsak ekitaldi horri oihartzun handia eman dio. Geroztik, Frantziako unibertsitate guztiek argitalpen horren berri ukan dute.

Dokumentazioa

Baionako ordezkariak ez du liburu ainitz erosten, bereziki leku eskasarengatik. Halere, Baionako ordezkariari garrantzitsua iduritu zaio *Euskaldunon Egunkariaren* bilduma osoa ukaitea. Horretarako, lehen zenbakitik den-denak josarazi ditu.

Azkue Biblioteka

AZKUE BIBLIOTEKA

Barne Erregelak

Biblioteka egoitza berrian kokatu ondoren (1991ko iraila) eta instalazio eta zerbitzu berriak inauguratuak izan ziren ezker (1992ko ekaina), Erakundearen Arautegia garatuko zuten barne erregela berriak indarrean jarri beharrean aurkitzen zen Azkue Biblioteka, erregela hauek onartuak izan zirelarik 1993ko irailaren 30ean, Arantzazun egindako euskaltzain osoen bilkuran. Erregela hauek arautzen dira, besteak beste, euskaltzain oso izan behar duen bibliotekariaren eskubide eta eginkizunak, bibliotekako zuzendari eta teknikoenak, eta Erakundearen azpiegiturazko Batzordearen zereginak, denak Zuzendaritzaren gidaritzapean daudelarik, eta azken batean, euskaltzain osoen ardurapean. Barne erregela berri hauek ez dakarte oraingoz biblioteka atontzen eta zerbitzuak prestatzen dituen langilegoaren aldaketarik.

Ondareen sarrerak

Nahiz eta aurreko urteetako aurrekontuekin konparatuz %25eko murrizketa izan aurtengoak, 1993an Erakundeak izan dituen dirulaguntzen mozketen arabera, ahal izan den neurrian, bederen, liburuaren erosketak eta aldizkariaren harpidetzak antzeko eran irauten dute, ikerleei ematen zaien ohizko zerbitzu berbera eta egunerotua mantentzeko. Jasandako murrizketak koadernaketetan izan dute eraginik nabariena, gaizki zeuden liburu zaharrak berriztatzeke plana alde batera utziz eta egunkariaren koadernaketei etena eman beharrez, hemerrotekaren zaintze eta erabiltzearen kaltetan. Honako hauek izan dira azken zazpi urteetan alean sartzeak:

Urtea	Erosiak/harpidetzak		Dohainik/trukez		Guztira	
	Aleak	Balioa pezetatan	Aleak	Balioa pezetatan	Aleak	Balioa pezetatan
1987	1.590	1.735.140	6.074	1.773.965	7.664	3.489.105
1988	753	1.448.938	4.675	1.819.635	5.428	3.268.573
1989	3.158	4.457.911	4.006	1.545.154	7.164	6.003.065
1990	1.032	2.485.199	4.887	3.206.283	5.919	5.691.482
1991	860	1.056.823	4.585	1.720.245	5.445	2.777.068
1992	1.097	3.583.222	4.539	1.825.225	5.636	5.408.447
1993	1.171	2.387.773	4.396	2.055.581	5.567	4.443.354
	12.677	17.155.006	41.360	13.946.088	54.037	31.101.094

Azkue Bibliotekako sarreraren erregistroak 1993. urteko azkenean 90.459

kopurua adierazten du, egunkariak, kartelak eta bestelako inprimaki xumeak kontutan hartu gabe. Urte honen zehar bi emaitza baliotsu hauek jaso dira:

1. Ohorezko euskaltzaina izan zen Antonio Tovar jaunaren euskal liburutegia, 537 liburu eta separatekin osotua, haren alarguna den Consuelo Larruzea andereak emana. Tovar jaunaren gutundegia sailkatu egin da, 881 jaun-andereekin gurutzatutako gutunak taituz eta kartazal handietan sartuz, bibliotekarako interesgarriak zirenen kopiak eginez, eta

2. Euskaltzain oso izan zen Pierre Broussain jaunaren gutundegia eta zenbait dokumentu, haren iloba den Maider de Courson andereak emanak.

Urte honen zehar euskaltzain oso izan zen Georges Lacombe jaunaren artxiboa taitu da eta ondare hau erosi zuen euskaltzain urgazle izan zen Telesforo Monzonen dokumentazioa, azken honen alarguna den Maria Josefa Ganuza anderearen Donibane Lohizuneko etxean datzana.

Erosi diren liburu bakan eta baliotsuen artean aipagarriak dira: Trentoko Kontzilioaren argitalpena, Iruñean 1759an inprimatua, Miguel Dorronsoro, Jose Yanguas Miranda, Nicolas Bordenave eta Juan Antonio Llorente-ren liburu bakanak eta *Codex Calixtinus* delakoaren argitalpen faksimilatua, oraintsu Santiago de Compostelan kaleratua.

Informatizazioa

Urtean zehar bibliotekan sartu diren monografia guztiak katalogatu dira, aipatu sarreren zerrenda bibliografikoak euskaltzain osoei hileroko bilkuran banatuak izan direlarik. 323 aldizkari ere informatizatuak izan dira urte honetan. Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, Autonomi Elkartean dauden biblioteka publikoentzat onartu du Azkue Bibliotekan jarritako Absys sistema. Beste sistema batzuekin, esate baterako Dobis/libis delakoarekin, elkargarria den katalogazio sistema honek beste bibliotekekin informazioa trukatzeko bidea ematen du. Disketak trukatzeko aukera honekin 1992an Gasteizko Biblioteka Publikoak egindako euskal literaturaren erregistroak lortu dira, Akademiaren ondare informatikoa aberastuz. Foru Diputazioetako eta beste biblioteketikiko harremanak jatorrak dira, gehien bat Madrileko Biblioteka Nazionalarekin, bibliotekaria den Jose Antonio Arana Martija honen Patronatoko eta Batzorde Iraunkorreko ki-dea baita.

Bestalde esan behar da Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren Ondare Zuzendaritzapean dagoen Autonomi Elkarteko katalogo orokorra prestatzen ari den Batzordeak, egoitzako Azkue Bibliotekan egiten dituela bilerak.

Bisitariak

Ia astero egoitza eta biblioteka ezagutzen etortzen diren taldeei, hala nola, HABE, AEK, institutuak, ikastolak, eskola publikoak eta bestelako ikastetxeak, azalpenak ematen zaizkie. Beste bisitari batzuk izan dira urtean zehar: Galiziako Akademiako Xexus Alonso Montero jauna, Tbilisiko unibertsitateko Ketji Magreli anderea, Peruko Unibertsitateko katedraduna den Adolfo Cerron jauna, Galesko Unibertsitateko katedraduna den Daffyd Elis-Thomas jauna, Bil-

bon dagoen Frantziako Konsulesa, Nicole Tremond anderea, Renoko Basque Studies Program-eko bibliotekaria den Marzelino Ugalde jauna,

Hizkuntzalaritzaz eta euskal literaturaz ikerketak egiten ari diren 1065 ikerleri beraien lanak burutzeko utzi zaizkie bibliotekan liburuak, aldizkariak eta egunkariak. Hainbat lan burutzeko Euskaltzaindiaren artxiboa kontsultatzeko baimena eskatu dutenak 27 izan dira.

Lankidetzak

Araututa dauden baldintzak bete ondoren, erakusketak prestatzeko materialak (liburuak, liburuxkak, argazkiak, e.a.) utzi ditu Azkue Bibliotekak: oho-rezko euskaltzaina den Agustin Zubikarai jaunaren omenaldirako eta euskaltzain oso izan zen Domingo Agirre jaunarenerako, biak Ondarroako Udalak antolatuak. Halaber, arrantzaren industria dela eta FEVEk antolatutako erakusketan parte hartu du Azkue Bibliotekak.

Euskaltzaindiaren 75. urtemuga dela eta, telebista eta irrastien programak prestatzeko eta prentsan agertu diren artikulak mamitzeko informazio ugaria eman du Azkue Bibliotekak. Eusko Jaurlaritzak prestatu dituen hainbat liburu-rentzat, informazio idatzia eta grafikoa eman da.

Desiderata

Aurrekontuan izan diren murrizketa nabariak jasan behar izan direlako, burutu ezinik geratu dira bi proiektu garrantzitsuak: fonotekan dauden grabazioak euskarri iraunkorrangoetan finkatzea, besteak beste Euskal Herriko Hizkuntz Atlasaren 2.400 zinta magnetikoak eta ondare zaharraren katalogazioa, lan hau burutzeko bi edo hiru bekadun behar direlarik. Bietatik lehenak ezinbesteko premia du altxor hau gordetzen duten zinta magnetikoek denborarekin kalitatea galtzen dutelako.

Argitalpenak

Batzorde honek bi azpibatzorde ditu:

- Argitalpen batzordea
- Argitalpen banaketaren zerbitzua

ARGITALPENAK

Argitalpen batzordeak 1993. urtean bi bilkura orokor egin ditu eta honen ardurapean honako liburuok argitaratu ditu Euskaltzaindiak:

1. *Euskera* (1992, 3): Miren Azkarate Villar Euskaltzaindian sartzea. Euskaltzaindiaren Gomendioak eta Erabakiak: *Guzti hau/hau guz(t)ia; Ene/nere/nire; neri;niri; Usain/usai, arrain/arra, zain/zai; Nor nahi/nor-nahi/nornahi; Nor/nortzuk, zer/zertzuk, zein/zeintzuk*. Batzar-agiriak; «Quelques commentaires et reflexions au sujet des «Materiales para un diccionario etimológico de la lengua vasca»; «Satan deabrua eta euskara. Mito baten inguruan»; «Zenbait puntutxo Leizarragaren hizkeraz»; «Normatibizazioari buruzko zenbait gogoeta»; «André Martinet UPV/EHUren Doctor Honoris Causa»; *Morfología del verbo auxiliar vizcaíno* (I, II) liburukien aurkezpena; *Pasaiaiko toponimia* liburukiaren aurkezpena; *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Ansoain* liburukiaren aurkezpena; Bilbao Bizkaia Kutzak eta Euskaltzaindiak sarituriko lanak; *Basque-English Dictionary. English-Basque Dictionary. Euskara-Ingeles/Ingeles-Euskara hiztegia* eta *Erbesteko euskal literaturaren antologia* liburukien aurkezpena; «In memoriam Gerardo Lopez de Guereñu Galarraga (1904-1992)».

2. *Euskera* (1993, 1): Euskaltzaindiaren 75. urtemuga; Euskaltzaindiaren adierazpena erdaratiko deituraren idazkeraz; Euskaltzaindiaren batzar-agiriak; Euskaltzaindiaren batzorde-organigrama; «Goñerrin aurkitutako testuak (VIII)»; «Iztuetaren *Guipuzcoaco condairaren* inguruan»; «Textos inéditos de autores vascos»; Nafarroako hiriburuaren izenaren gainean»; «'Resurrección María de Azkue' sariak»; Euskaltzainak antzinatasunaren arabera»; *Morfología del verbo auxiliar alto navarro septentrional (I)*, *Morfología del verbo auxiliar alto navarro septentrional (II)*, *Morfología del verbo auxiliar alto navarro meridional*, *Morfología del verbo auxiliar roncalés* liburukien aurkezpena; *Nazioarteko Dialektologia Biltzarra. Agiriak* liburukiaren aurkezpena/ Presentation de l'ouvrage *Nazioarteko Dialektologia Biltzarra. Agiriak*; «1993. urterako Euskaltzaindiaren egutegia».

3. *Euskera* (1993, 2): Euskaltzaindia Nafarroako Legebiltzarrean; Euskaltzaindiaren adierazpena «Euskara batuaz»; Batzar-agiriak; «Ofizio eta titulu nortasuna Hondarribiko etxe-izenetan»; «Petri, Pedro...»; «En torno a Urdaitz/Urdániz»; «Nafarroako zenbait ibar, herri eta auzoren euskarazko izenaz»; «Baztango erranai-ruak»; Euskaltzaindia eta Bilbao Bizkaia Kutzaren literatura-sariak.

4. *Morfología del verbo auxiliar alto navarro septentrional (I)*. Pedro de Yrizar jaunak prestatua. Nafarroako Gobernuaren babespean argitaratua.

5. *Morfología del verbo auxiliar alto navarro septentrional (II)*. Pedro de Yrizar jaunak prestatua. Nafarroako Gobernuaren babespean argitaratua.

6. *Morfología del verbo auxiliar alto navarro meridional*. Pedro de Yrizar jaunak prestatua. Nafarroako Gobernuaren babespean argitaratua.

7. *Morfología del verbo auxiliar roncalés*. Pedro de Yrizar jaunak prestatua. Nafarroako Gobernuaren babespean argitaratua.



Ezkerretik eskuinera: Endrike Knörr, Jean Haritschelhar, Juan Cruz Alli, Jose Maria Rodriguez Ochoa, Pedro de Yrizar.

8. *Euskal gramatika laburra. Perpaus Bakuna.* Gramatika batzordearen emaitza. Pello Salaburuk paratua.

9. *Komediaren Jainkoa.* Patxi Ezkiaga. Felipe Arrese Beitia poesia-saria, 1992, Euskaltzaindia-Bilbao Bizkaia Kutxa.

10. *Agota pastoral.* Junes Casenave-Harigile. Toribio Alzaga antzerki-saria, 1992, Euskaltzaindia-Bilbao Bizkaia Kutxa.

11. *Soziolinguistikaren atarian.* Joxe Manuel Odriozola. Mikel Zarate saio-saria, 1992, Euskaltzaindia-Bilbao Bizkaia Kutxa.

12. *Argitalpenen Katalogoa.* Euskaltzaindiak orain arte kaleratu dituen lanen zehaztasunak dakartzan liburukia.

13. Euskaltzaindiaren *Oroit-Idazkia (1992)*. Erakundeak 1992. urtean buruturiko ekintzak, lanen zehaztasunak eta azalpenak dakartzan argitalpena.

Argitalpenen banaketa

ARGITALPENEN BANAKETA ZERBITZUA

Euskaltzaindiaren biltegiak duen liburu-kopuruagatik premiazko den mantenu eta antolatze lana burutzeaz gain, behar den besteko informazio orokorra eta zehatza eduki ahal izateko, informatizatze bideari ekin zaio.

Erakundearen barne-eremuetatik bideratzen diren argitalpenen banaketa egin eta egoitzara idatziz eta telefonoz zuzendutako eskarien erantzunkizuna betetzen du zerbitzu honek. Urte honetan 7.500 bat liburuki saldu dira, berauen salmenten emaitza 6.588.800,- pezetatakoa izan delarik.

Halaber, Euskaltzaindiak bere Azkue Bibliotekarako beste erakundeekin duen trukezkoei ere ohi den banaketa egin zaie. Era berean, Akademiaren hainbat batzordetan lankide diren 80ren bat laguni ere dohainezko banaketa hau egiten zaie, *Euskera* agerkaria, *Iker* eta *Euskararen Lekukoak* bildumetan argitaratutako liburukiena hain zuzen. Honen arabera eta bestelako harremanez egindako emaitzekin, 4.000 bat liburu banatu ditu zerbitzu honek.

1992

ARGITARAPENEN KATALOGOA
CATALOGO DE PUBLICACIONES
CATALOGUE DES PUBLICATIONS



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

XXVIII. Euskal Liburu eta Disko Azokan, Durangon, abenduaren 3,4,5, eta 6an, bi stand prestatuz, lanean aritu da Euskaltzaindiaren zerbitzu hau, egoitzako lankideen partaidetzarekin. Bertan aurkeztutako liburu berrien artean, *Morfologia del verbo auxiliar alto navarro septentrional (I, II)*, *Morfología del verbo auxiliar alto navarro meridional*, *Morfología del verbo auxiliar roncalés* eta *Euskal Gramatika. Perpaus Bakuna*, aurkeztu dira.

LIBER'93, ekainaren 22tik 26ra Bartzelonako Fira delako erakustazokan egin da. Aurreko urteetan ez bezala, Euskaltzaindiko ordezkariarik joan ez bada ere, 30 argitalpen titulu aurkeztu ditu euskararen Akademia honek, Eusko Jaur-laritzak, E.A.E.ko beste erakunde eta elkarteekin batean Erakustazoka Nagusi horretarako jarri duen stand-ean.

Bestelako zerbitzuak

BESTELAKO ZERBITZUAK

Itzulpenak

1993.eko urtean bideratu diren itzulpenetatik aipagarrienak ondoko hauek dira.

Egoitzan, Argitalpen zerbitzutik:

- Erakundeak: ISBN, Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, Bizkai-ko Foru Diputazioa eta Eusko Ikaskuntza.
- Banku eta Aurrezki Kutxak: Banco Bilbao Vizcaya, Bankoa, Bilbao Bizkaia Kutxa, Caja Laboral Popular/Euskadiko Kutxa eta La Caixa.
- Udalak: Bilbo, Vitoria/Gasteiz, Getxo eta Andoain.
- Publizitate enpresak: Aurman, David Abajo diseño, Deika eta Herrero & Asociados.
- Beste zenbait enpresa eta gizabanakoak: Iberia, Iberdrola, Gráficas Elkar, Composiciones Rali, S.A., Composiciones Ikur, Gráficas Munguia, Industria de Turbo Propulsores, Edebé. Ascensores Obea, Centro de Documentación y Estudios de la Mujer, Café Bar Bilbao, *Jakin* aldizkaria, *Egan* aldizkaria, Estudios Riojanos, Centro Industrial y Mercantil de Vizcaya, Patxo Arrutia, Isidro López eta Angel Dominguez.

Arabako ordezkartzan, Gobernu Zentralaren Ordezkaritzak eskatuta, honako itzulpen hauek zuzendu dira:

- Defentsa Ministeritza:
Soldadutzara joateko izenemate-orria (30 orrialde, dagozkion fitxak, argibideak, arauak, etab.); soldadutzatik salbuetsita geratzeko aurkeztu beharreko agiriak; soldadutzara joateko luzapenak.
- Barne Ministeritza: Trafiko buruzagitza (35 orrialde).
Ibilgailuen matrikulatze eskaerari buruzko dokumentazioa; gidatze-agiria eta dagokion inpresaria; gidatze eta zirkulazioko frogen inpresaria eta izen-emate orria; ezagutza mekanikoaren frogen salbuesteak; gaitasun frogen eskaera.

- Poliziaren Zuzendaritza Orokorra:
 - Nortasun Agiri Nazionala eskatzeko orria eta dagokion inpresaria; aurretiazko zita.
- Lan eta Gizarte Segurantza: Itsas Gizarte Institutua (17 orrialde).
- Hezkuntza Ministeritza:
 - Funtzionarioentzako inprimakiak (25 inprimaki): lanposturako izendapenari buruzko erabakia; lanpostuaz jabetzea legezko egitea; administrazio egoera aldatzeari buruzko erabakia... etab.
 - Irakasleentzako inprimakiak (27 inprimaki).
 - Irakaskuntza unibertsitarioa (irakasleei eta bestelako funtzionarioei dagozkien inprimaki guztiak).
- 1994ko Europako Legebiltzarrerako Hauteskundeak (material osoa).
- Jagon sailak Europistas entresari egindako gutunaren eraginez, beraren jabetxeetako menuen itzulpenak eta hainbat seinalizazioen zuzenketak egin dira.

Aldi berean, gramatikarekiko zalantzak, hiztegi-gintza, metodoak, bibliografia, euskara ikasteaz, lantzeaz eta metodologiak, itzulpen-teknikaz, alfabetatze-orientabideez, hor-hemen buruturiko itzulpenei oniritzia emateaz, Administrazio-ko lanpostuetarako azterketei buruzko kontsultak, eta abar luze bati erantzun zaio, bai egoitza eta bai ordezkari-tzetatik.

Diruzaintza

DIRUZAINZA

Erakunde honek Egoitza berrira aldatu ondoren eten gabe ahalegindu da bere gizabaliabideak eta azpiegiturako tresneria-baliabideak eguneroko eskaerei ahalik eta hobekien erantzuteko egokitzen. Bide horretatik, aurtun administrazio zerbitzuak informatizatu ditu testu-tratamendua, datu-bankua eta kontabilitate orokor berria ezarriz.

Gure Herriak bizi duen ekonomi-egoera larria ahanzi gabe, gastuei eutsi eta, ahal izan den neurrian, murrizteko bideak hartu dira, baina halaz eta guztiz ere, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eta Nafarroako Comptos Ganbarak egin berri duten aditegiaren arabera eta kontu-errendapen honetan agertzen den bezala, mentsa aipagarria gertatu da urtealdiko Euskaltzaindiaren Aurrekontuan. Aipatu behar da 1992ko uztailean Herri Aginteei aurkeztutakoa oinarritzat harturik azken emaitzak %0,9ko gainditze bat izan duela.

Bihoazkie lerro hauen bidez, Akademi erakunde honen eskerrik onenak bere dirulaguntzaz lagundu gaituztenei eta, batez ere, Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernuaren Hizkuntz Politikarako Idazkaritza Nagusiei, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Diputazioei, Hezkuntza Ministeritzari, Pirinio Atlantiarretako Kontseilu Nagusiari eta hainbat udalei. Aipagarriak dira, baita ere, Euskal Herriko Unibertsitateak eta Bordelekoak emandako laguntza bereziak.

1993. URTEKO KONTU ERRENDAPENA

SARTZEAK		IRTETZEAK	
Diruzaintza	7.726.193,-	Ibilgetu materiala	9.889.552,-
Herri Aginteeak (Hitzarmena)	179.502.218,-	Ikerketa gastuak	104.585.575,-
Hezkuntza Ministeritza	10.912.000,-	— Batzordeak	15.921.608,-
Iparraldeko Erakundeak	2.500.000,-	— OEH	44.987.178,-
Udalek	842.733,-	— EHHA	25.894.389,-
Gizabanakoeak	1.253.750,-	— Ohiko argitalp.	8.163.254,-
Argitalpenetarako laguntzak	5.303.024,-	— Ez ohiko argitalp.	<u>9.619.146,-</u>
Bestelako laguntzak	555.650,-	Alokatzeak	2.957.081,-
Finantza sartzeak	142.284,-	Konponketak eta zaintzea	3.726.233,-
Zerga itzulpenak (BEZ)	10.169.867,-	Zerbitzu profesinalak alokat.	7.109.624,-
Kudeaketa sartzeak	13.305.949,-	Garraioa	1.157.640,-
— Salmentak	8.754.568,-	Orniketak	8.046.692,-
— Matrikulak	70.000,-	Biltzar eta ospakizunak	1.360.259,-
— Beste zerbitzuak	<u>4.481.381,-</u>	Beste funtzionamentu gastuak	8.036.123,-
	_____	Gizabanakoei ordainketak	126.855.569,-
	232.213.668,-	— Alogera eta esleipen	94.057.448,-
		— Gizarte Asegurantzak	<u>32.798.121,-</u>
		Zergak	180.577,-
		Epe luzerako zorrak	750.000,-
Mentsa	45.688.378,-	Finantza irteteak	3.247.121,-
	_____		_____
	277.902.046,-		277.902.046,-

Aurkitegia

AURKITEGIA

EGOITZA

Plaza Barria, 15
48005 BILBO
Telf.: 94-4158155
Faxa: 94-4158144
Arduraduna: Jose Luis Lizundia

AZKUE BIBLIOTEKA

Plaza Barria, 15
48005 BILBO
Telf.: 94-4152745
Faxa: 94-4150051
Arduraduna: Jose Antonio Arana Martija

GORDAILUA

Bilbo-Donostia errepidea, z/g - 4,5 km
Edif. SAGA - 1. solairua
48004 ETXEBARRI (Bizkaia)
Telf.: 94-4406258
Arduraduna: Rosa Mari Arza

ORDEZKARITZAK

ARABA

San Antonio, 41
01005 GASTEIZ
Telf.: 945-233648
Faxa: 945-233940

Ordezkarria: Manuel M. Ruiz Urrestarazu

GIPUZKOA

Hernani, 15
20004 DONOSTIA
Telf.: 943-428050
Faxa: 943-428365

Ordezkarria: Juan Mari Lekuona

NAFARROA

Conde Oliveto,2-2.
31002 IRUÑEA
Telf.: 948-223471
Faxa: 948-210713

Ordezkarria: Jose Maria Satrustegi

IPARRALDEA

37, rue Pannecau
64100 BAIONA
Telf. eta faxa: 07-33-59256426

Ordezkarria: Pierre Charritton





